

Emakumearen egoera Bizkaiko nekazari aldeetan

1. AURKEZPENA

2. HELBURUAK

- 2.1. Helburu nagusia
- 2.2. Helburu zehatzak

3. PROZESU METODOLOGIKOA

- 3.1. Ikerketaren diseinua
- 3.2. Alorreko lanaren faseak
 - 3.2.1. Posta-galderasortaren diseinua.
 - 3.2.2. Posta-bidalketak: galdera-sorta, aurkezpen-gutuna eta gutunazal aurrefrankeatua.
 - 3.2.3. Galdera-sortak hartzea.
 - 3.2.4. Jasotako posta-galderasorten lagina.
 - 3.2.5. Emaizak grabatzea.

4. EMAITZEN AZTERKETA.

- 4.1. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen gizarte-demografiakoezaugarriak
 - 4.1.1 Adina
 - 4.1.2 Egoitza-udalerria.
 - 4.1.3 Bukatutako Ikasketak.
 - 4.1.4 Egoera zibila
 - 4.1.5 Seme-alaben kopurua
 - 4.1.6 Etxeko eta familiaren baitako erantzukizunen banaketa.
- 4.2. Emakumeen jardueraren ezaugarriak
 - 4.2.1 Jarduera Nagusia eta Nekazaritzako Gizarte Segurantzarenganako Kotizazioa.
 - 4.2.2 Ustiategiaren Ekoizpen Orientazio Nagusia.
 - 4.2.3 Ustiapenaren Gehiengodun Araubidea eta Titulartasun/Titularkidetasuna.
 - 4.2.4 Jarduerako Antzinasuna.
 - 4.2.5 Ustiategia egunero ibiltzeko arduraduna
 - 4.2.6 Jardueraren Famili Jatorria
 - 4.2.7 Ardura ekarri zuen Arrazoi Nagusia.
- 4.3. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duen emakumearen beharrizan nagusiak
- 4.4. Nekazaritza edo/eta abeltzintzako jarduerarekiko gogobetetasun maila
 - 4.4.1. Landako emakumearentzako laguntzarekikoa.
 - 4.4.2. Produktuak merkaturatzearekikoa.
 - 4.4.3. Diruzko laguntzekikoa.
 - 4.4.4. Titulartasun/titularkidetasuna sustatzeko ekintzekikoa.
- 4.5. Bizkaiko landa jardueran genero-diferentziak egotea.
- 4.6. Prestakuntza
 - 4.6.1 Ikastaroak egitea.
 - 4.6.2 Haien Onuragarritasuna baloratzea.
 - 4.6.3 Prestakuntzarik ez egitearen arrazoiak.
 - 4.6.4 Prestakuntza Beharrizanak detektatzea.
- 4.7. Elkarte egintza maila.

5. EMAITZEN LABURPENA

ERANSKINAK

1. Aurkezpena

Bizkaiko Foru Aldundiaren Unitate Periferikoetako eta Antolakuntzako Zerbitzuak egindako txosten honek Bizkaiko Nekazari Aldeetako Emakumearen Egoerari buruzko azterketa aurkezten du.

Gizarte-demografiatzko ezaugarriei, jarduerari eta beronekiko gogobetetasun mailari buruzko diagnostiko orokorraz ari gara. Era berean, hainbat mailatako (maila ekonomikoak, prestakuntzakoak...) detektatu gura dira. Beti genero-perspektiba mantenduko da egoera-azterketako zeharkako gidalerro bezala.

Ikus daitezkeen bezala, txostena sei (6) kapitulutan egituratu da:

1. Aurkezpena
2. Azterketaren Helburuak.
3. Prozesu Metodologikoa.
4. Eraitzen azterketa.
5. Eraitzen laburpena

Gainera, honako eranskin biok erantsi dira:

- Egindako taula eta grafiko guztien aurkibidea.
- Informazioa jasotzeko erabilitako posta-galderasorta

Prozesu metodologiko zorrotza abian jarri ostean, diagnostiko honen bitartez, Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueretan lan egiten duten emakumeak ukitzen dituzten hainbat errealitatetatik hurbileko argazki bat lortu ahal da.

Erretratu honek dauden amankomuneko elementuak bilatu ditu, baita diferentziak ere baina. Izan ere, heterogeneotasunaren bilaketan eta talde baten segmentazioan bermatuta daude, era berean, erakundeek eta taldeek Bizkaiko nekazari aldeetako emakumeek azaldutako eskariak betetzearen alde esku hartzeko hartu ahal dituzten neurriak.

Era berean, ikerketa hertsizko perspektibatik, lehen hurbilketa honen ostean, azterlan honetan sortutako analisi arlo eta alde batzuek sakontze maila handiagoa beharko lukete.

Azkenik, Bizkaiko nekazari aldeetako emakume askok parte hartu dute azterketa honetan, postazko galdera-sortak betez, eta hori eskertzea bidezkoa da.

2. HELBURUAK

2.1. Helburu Nagusia

- Bizkaiko nekazari aldeetako emakumeen egoera orokorra aztertzea.

2.2. Helburu zehatzak

- Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueretan lan egiten duten emakumeen gizarte-demografiako ezaugarriak jakitea: adina, egoitza, azterketak, egoera zibila, seme-alaben kopurua eta abar.
- Bizkaiko nekazari aldeetan emakumeek egiten duten jardueraren ezaugarriak kontutan hartzea: lan-jarduera nagusiaren ezaugarriak, ekoizpen-orientazioa, antzintasuna eta ustiategiaren araubidea (nekazaritzakoa, abeltzaintzako edo mistoa), nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioa, titulartasun/titularkidetasuna eta abar.
- Bizkaiko emakumeen landa-jarduerako arduraren eragina izan duten arrazoiak jakitea.
- Jarduerarekiko gogobetetasun maila islatzea.
- Nekazaritza edo/eta abeltzaintzako sektorearekin loturik dauden prestakuntza-jardueretako partaidetza maila jakitea.
- Nekazaritza edo/eta abeltzaintzako sektorearekin loturik dauden elkarteetako partaidetza maila jakitea.
- Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueran lan egiten duten emakumeek ezagutarazitako beharrezkoak ezagutzekoak: nekazari aldeetako emakumearentzako laguntza, diruzko laguntzak atzitzea, produktuak merkaturatzea, prestakuntza-ekintzak...
- Genero ikuspegitik Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen beharrezkoak eta eskari zehatzak egon ahal direla kontutan hartzea.
- Dauden gogobetetasunik ezeko enklabe potentzialak konpontzeko jarduketako estrategiak gomendatzea.

3. Prozesu Metodologikoa

Kapitulu honetan prozesu metodologiko inplementatua azalduko da, bai beraren aukerei bai beraren fase guztiei eta lehenengo emaitzei dagokienean.

3.1. Ikerketaren diseinua

Azterlanaren helburu nagusia eta zehatzak kontutan hartuta, Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueran lan egiten duten emakumeen egoerari buruzko azterketa eta azterketa orokorra ezartzei begira, lehen unetik uste zen ezen aukerarik egokiena "ad hoc" galdera-sorta informazioa jasotzeko teknika bezala egitekoa zela.

Baina azterketaren helburuen izaerari beste arrazoi guztiz esanguratsu bat gehitu zitzaion: Bizkaiko nekazaritza sektoreko emakumeei buruzko informazio analitiko urria izatea. Egia da talde honekiko hurbilketak daudela. Baina ordura arte ez zegoen Bizkai osorako osoko azterlanik, aipatu Lurralde Historikoko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueran lan egiten duten emakumeen egungo egoera aztertzen zuenik, mugak zeudelako.¹

3.2. Alorreko lanaren faseak

Bigarren mailako iturrien (txostenak, artikulak...) urritasuna zela eta, are beharrezkoagoa zen aztergaia zuzenean eskuratzea. Eta galdera-sortaren teknikak, kasu honetan postazkoak, informazio jasotzeko tresna den aldetik, alderdi hori konpontzea errazten zuen.

3.2.1. Posta-galderasortaren diseinua

Azterketaren helburuak kontutan hartu eta Nekazaritzako Ustiapenen Erregistrotik eta azterketaren sustatzailearen (Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren Unitate Periferikoetako eta Antolakuntzako Zerbitzuak) datuetatik abiatuta Bizkaian nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueran lan egiten duten emakumeen helbideak ezagutzeko aukera izanik, postazko galdera-sorta informazioa jasotzeko metodologi teknikoak egokiena bide zen.

Postazko galdera-sorta azkenean diseinatzeko aldagaririk garrantzizkoenak honakook izan ziren:

1. Egoera aztertzearen helburu nagusia eta zehatzak.

2. Dauden bigarren mailako argibideak (agiriak, artikulak eta abar), eta arlo honetako informatzaile estrategikoen iritzia: Unitate Periferikoetako eta Antolakuntzako Zerbitzuarenak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Unitatearenak.

3. Postazko galdera-sortak diseinatzeko ohiko metodologi irizpideak, esate baterako, lengoaiaren erraztasuna, tamainaren zehaztapena eta abar.

Ari garen kasuan, erraztasuna bilatzea zen posta-galderasortaren alternatiba posible ia bakarra. Eta horrelakoa izan zen azkenean garatu zena, bai Bizkaiko landako emakumearen mota eta profilengatik –ikusiko den bezala, 54 urteko batezbesteko adina duten emakumeak– bai espedienteak, orokorrean, eta, zehazki, galdera-sortak betetzeko emakumeen aztura urriagatik.

Txosten honen 3. Eranskinean egiaztatu ahal den bezala, azkenik emakumeei hogeita bi (22) galderako galdera-sorta bidali zitzaion. Erakunde sustatzaileak haren helburu nagusia laburki azaldu zuen, eta ekintzak errealitatera gehiago doiturik planifikatzeari begirako emaitzen garrantzia, erantzunen izaera anonimoa, haiek betetzeko jarraibideak eta doako birbidalketa. Horren ostean, zazpi galdera-bloke handi bereizi ziren:

1. Emakumeen gizarte-demografiako ezaugarriak: 01G- 05G eta 18G.
2. Ustiategiko jarduera nagusiaren ezaugarriak: 06G-14G.
3. Jarduerarekiko gogobetetasun maila: 17G.
4. Bizkaian nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueran egon daitezkeen genero-diferentzietan buruzko iritzia: 15 G.
5. Bizkaiko landa-sektoreko emakumearen beharizan nagusiak: 16 G.
6. Benetako burutzapena eta prestakuntza-beharizan potentzialak: 19G- 20 G.
7. Elkarteetako partaidetza maila: 21G.
8. Iruzkin-galdera irekia: 22G.

3.2.2. Posta-bidalketak: galdera-sorta, aurkezpen-gutuna eta gutunazal aurrefrankeatua.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren beraren informazio-iturrietatik abiatuta, emakumeen egoitzetara 2.240 posta-bidalketa egin ziren guztira, Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren Unitate Periferikoetako eta Antolakuntzako Zerbitzuak bidalitako informazioa kontutan hartuta parte hartu ahal zutenak garbituta. Hark Nekazaritzako Ustiategien 2004ko Erregistroa hartu du iturritzat.

Informazioa jasotzeko teknikak aplikatzeko edozein strategiaren kasuan bezala, kasu honetan mekanismoak ezarri nahi ziren Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueretan lan egiten zuten emakumeen erantzun-indizeak ahalik eta altuenak izan zitezen eta, horrela, zenbatetsiriko lagina estal zedin.

Postazko galdera-sorta diseinuan eta edukian beterraza diseinatzeko estrategiarekin batera beste lau estrategia ziren:

1. Lehenik, posta-kutxa bat duen gutunazal aurrefrankeatua sartu zen. Kutxa horretara galdera-sorta beteta bidali behar zen doan.
2. Bigarrenik, informazioa garatu eta lantzeko ahalik eta objektibotasun eta profesionaltasun handiena bilatzeko xedez, bai galdera-sortan bai gutunazal aurrefrankeatuan adierazi zen ezen enpresa adjudikatarioa zela informazioaren jasotzailea eta hura aztertze arduraduna
3. Hirugarrenik, Bizkaiko Eskualdeetako Nekazaritzako Bulegoei (ENBei) eta Landa XXI Landa-eremuko

Emakume eta Familien Elkarteari azterlan hau abiarazteko asmoa adierazi zitzairen, zertarako-eta haiek azterlaneko protagonistak diren emakumeek azaldutako zalantzak argitu ahal izateko.

Emaitzei jarraiki defendatutakoaren arabera, ezarritako eragiketak informazioa modu egokiagoan jasotzea erraztu du, haren kalitate eta fidagarritasunari dagokionean bereziki, ondorengo ataletan erakutsiko den bezala.

3.2.3. Galdera-sortak hartzea

Posta-bidalketa 2004ko maiatzaren 13an egin zen. Galdera-sorta betetzeko jarraibideetan 2004ko maiatzaren 30a adierazi zen gutunazal aurrefrankeatua horretarako irekitako Bilboko posta-kutxatilara berriz bidaltzeko gehieneko data bezala. Hori zela eta, parte har zezaketen emakumeek 15 bat eguneko epea (bi astekoa) izan zuten galdera-sortak itzultzeko.

Ohi bezala, galdera-sortak jasotzeko beranduenerako data 2004ko ekainaren 12ra arte zabaldu zen. Hori zela bide, azkenean, posta-galderasortak jasotzeko epea lau (4) bat astetara zabaldu zen.

3.2.4. Jasotako posta-galderasortaren lagina

Guztira 228 postazko galdera-sorta jaso dira alorreko lana bukatu arte. Azterketa honen alorreko lanaren zehaztasuna kontutan hartuta, hau da, posta bidezko bidalketetatik jasotako erantzunak kontutan hartuta, azkenean lortutako laginak iritsiriko konfiantza maila jakin behar da, eta laginean dagoen okerra.

- Konfiantza maila: %95
- Lagineko okerra: +/- %6

Esanguratsutasun hori ikusita esan dezakegunez, lorturiko emaitzak guztiz fidagarriak dira eta azterketa, hura egiteko eta informazioa jasotzeko metodologiari dagokionean, arrakastatsua da. Horrela, aldakuntzarik handieneko kasurik txarrean ere gaude aztertutako edozein aldagaitan.

3.2.5 Emaitzak grabatzea

Galderak interpretatzeko okerrak arintzeko ahaleginak egin arren, Bizkaiko landa-sektorean jarduerak egiten dituzten emakumeek bidalitako postazko galdera-sortak grabatzeko lanean honako funtsezko arazo hauek detektatu dira, beren errepikapenaren ikuspuntutik garrantziaren hurrenkeran jarraian azalduta daudenak:

1. Item batzuk ez betetzea, irekiak bereziki.
2. Ustiategiaren orientazio nagusia nekazaritzako ekoizpenaren kasuan azalerara (hektareetara) eta abeltzaintzakoarenean abelburu kopurura mugatzeko zailtasuna.
3. Nekazaritza edo/eta abeltzaintzako ustiapenean eman dituzten eta zenbakitan zehazturik ez dauden urteei buruzko erantzunak kategorizatzea.

¹Bizkaiko Foru Aldundiaren Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Unitateak 2000tik egunera arte ikerketa, prestakuntza eta sentsibilizazioko jardura partzialak sustatzen izan ditu, Bizkaiko landa-sektoreko hainbat elkarterekin, beste batzuen artean, emakume elkarteekin. Baina haietariko gehienak partzialak dira, jardura edo eskualde zehatz batera mugatuak. Modu berean, J. MAULEÓNEN lan bat dago: "Bizkaiko emakumezko nekazarien egoera". Lekua: Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Saila, Mujeres baserritarras: alternativas a la titularidad única en las explotaciones agropecuarias. 2002ko 1. edizioa, Nekazaritza Zentsutiko 1999ko datuetan oinarriturik dagoena. Horrek bost urteko denbora-distantzia dakar. Modu orokorragoan, EAE osorako J. MAULEÓNEN azterketa gomendatu behar da: Estrategias familiares y cambios productivos del caserío vasco. Eusko Jaurlaritza. Bilbo. 1998.

4. EMAITZEN AZTERKETA

Kapitulu honetan azalduko dira Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen iritziak, postazko galdera-sorta bidez bidaliak, aztertu ostean lorturiko emaitzak.

Egoera azterketaren helburu orokorrari eta zehatzei jarraiki, aztertzeko erabilitako prozedurak emaitza absolutuak eta portzentalak tauletan eta emaitza portzentalak grafikoetan erakusten du. Azken emaitza horiek "ez daki/ez du erantzuten (ed/ede)" kategoriaren barruan sarturiko erantzunak ezabatu dira, erantzunak homogeneizatzeko eta galdera-sortako itemen artean erkatzeko moduko egiteko.

4.1. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen gizarte-demografiako ezaugarriak

Jarraian azalduko dira Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten eta azterlanean zuzenean parte hartu duten emakumeen Gizarte-demografiako ezaugarriak jakitea ahalbidetzen duten emaitzak.

4.1.1 Adina

1. taulan ikus daitekeenez, Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen batezbesteko adina 54,03 urtekoa da. Kontutan hartu behar dira Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren Unitate Periferikoetako eta Antolakuntzako Zerbitzuak Bizkaiko Eskualdeetako Nekazaritza Bulegoen (ENBak) erabiltzaile guztiei begira 2004an egindako beste ikerketa baten emaitzak. Bertan kaleraturiko haien batezbesteko adina 53,24 urtekoa izan zen. Emaitza horiek kontutan hartuta dirudenez, Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeak apur bat zaharrak dira.

Adina	Batezbesteko adina
Emakumeak	54,0
ENBak gustira	53,2


1. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen batezbesteko adina. 2004.

Nabarmentzekoa denez, bi izan dira azterlan honetan parte hartu duten emakumerik gazteenak, 23na urteko abeltzainak alegia. Batak egoitza Mungian du, eta besteak Karrantzan. Azterlanean parte hartu duen emakumerik zaharrenak egoitza Guenesen du eta abeltzaintzara orientatuta dago.

Adierazitako batezbesteko adina kontutan harturik, 2. taulan eta 1. grafikoan adin-tarteka taldekatu dira azterlanean parte hartu duten emakumeak. Horrela, nabarmentzekoa denez, parte hartu duten 100eko 83,0 emakumek 40 urte baino gehiago dituzte; eta 100eko ia 62k, 50 urte baino gehiago. Beste alde batetik, parte hartu duten 100eko 2,7k (6k) bakarrik dute 30 baino gutxiago; eta %14,3k (32k), 31-40 urte.

Adin-taldeak	Guztira	Ehuneakoak
30 urte edo gutxiago	6	2,7
31 - 40 urte	32	14,3
41 - 50 urte	47	21,1
51 - 60 urte	68	30,5
60 urtetik gora	70	31,4
Ed/Ede	5	
Guztira	228	100

2. taula: Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen adin-taldeak. Guztirakoak eta ehuneakoak. 2004.



1. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen adin-taldeak. Guztirakoak eta ehuneakoak. 2004.

² BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN NEKAZARITZA SAILAREN UNITATE PERIFERIKOETAKO ETA ANTOLAKUNTZAKO ZERBITZUA. Evaluación de la calidad del servicio de las Oficinas Comarcales Agrarias (O.C.A.s) de Bizkaia. Bilbo, 2004.

4.1.2 Egoitza-udalerrria


Galdera-sortako 2. galdera (02G) inkesta egin zitzaionaren egoitza-udalerrria ezagutzekoa zen. Erantzun ezberdinak jaso dira, Bizkaiko laurogei udalerritatik guztira. Alabaina, egoitza Karrantzan duten hogeita zazpi (27) emakumeak nabarmendu dira, erantzunen %12,2 ekarri dutenak; eta Murgiako eta Markinako zortzi (8) erantzunak eta Bermeoko eta Gernikako sei (6) erantzunak.

4.1.3 Bukatutako ikasketak

Bukaturiko ikasketa mailari dagokionez 3. taulan eta 2. grafikoan ikus daitekeenez, 100eko 81,3 parte-hartzailek lehen mailako ikasketak edo ikasketa bukatugabeak dituzte. Bigarren ikasketak –batxilergoa edo lanbide ikasketak– guztirakoaren %16,0 (20) dira. Unibertsitateko ikasketak dituzten parte-hartzaileak %2,7 dira (6).

Ikasketak	Guztira	Ehunekoak
Ikasketarik	32	14,2
Oinarrizkoak	151	67,1
Lanbide Ik.	22	9,8
Batxilergoa	14	6,2
Unibertsitatekoak	6	2,7
Ed/Ede	3	
Guztira	228	100

3. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeek bukatutako ikasketak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.



2. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeek bukatutako ikasketak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

Zalantzarik gabe, emaitza horiek aurretik adierazi dugun emakumeon batezbesteko adinarekin lotuta daude eta landako bizimoduak eskolaratzea errazten ez zuen eta bestelako faktoreak zeuden garai batera bidali gaituzte

Ikasketa mailari buruzko emaitzak Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintza sektorean lan egiten duten emakumeen batezbesteko adinari buruzkoekin batera jarrita ondoriozta daitekeenez, talde honek, oro har, beren sozializazioaren eta balore kodearen markoan murrizketa objektiboak agertzen ditu. Kontu horiek ez dute haren prestakuntza-ekintzetako partaidetzari edo elkartegintza mailari eta beste alderdi batzuei buruzko egungo egoera interpretatzeko bakarrik balio izan behar, baita, bereziki, jarduketa potentzialak ezartzeko ere.

Horrek ez du esan nahi talde honen baitan barnetik bereizteko elementurik detekta daitekeenik. Era berean, horrek jarduketa potentzialak Bizkaiko landa-sektoreko emakumearen errealitatera hobeto doiturik orientatzea erraztuko luke.

4.1.4 Egoera Zibila

4. taulan eta 3. grafikoan ikus daitekeenez, azterketa honetan parte hartu duten 100eko 78,1 emakume ezkontuta daude (178).

Gehienak ezkontuta daude. Izan ere, 100eko 10,5 (24) ezkondu gabe daude, %8,8 (20) alargun eta %2,6 (6)

bikotekidearekin bizi direla. Parte hartu duen ezein emakume ez dago dibortziatu ez banandurik.


Egoera Zibila	Guztira	Ehunekoak
Ezkongu gabe	24	10,5
Ezkonduta	178	78,1
Bikotekidearekin bizi izanik	6	2,6
Dibortziatu edo bananduta		
Alargun	20	8,8
Destelako egoerak		
Guztira	228	100

4. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen egoera zibila. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

4.1.5 Seme-alaben kopurua

5. taulan ikus daitekeenez, emakumeen seme-alaben batezbesteko kopurua 2,07koa da. Horrela, parte hartu duten 100eko 68,2k seme-alaba 1-3na dute. 100eko 12,5ek ez dute seme-alabarik.

Azkenik nabarmendu behar denez, parte hartu duen emakumeetako batek 11 seme-alaba ditu.



3. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen egoera zibila. Ehunekoak. 2004

Seme-alaba kopurua	Guztira	Ehuneakoak
0	28	12,5
1	34	15,2
2	92	41,1
3	49	21,9
4	15	6,7
5	3	1,3
6	1	0,4
7	1	0,4
11	1	0,4
Ed/Ede	4	
Guztira	228	100
Seme-alabak batez beste	2,07	


5. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen seme-alaba kopurua. Guztirakoak eta ehuneakoak. 2004.

4.1.6 Etxeko eta familiaren baitako erantzunkizunen banaketa

Galdera-sortako 18.G generoen arteko berdintasun maila egiaztatzeko neurririk esanguratsuenetako bati buruzkoa zen: gizon eta emakumeen arteko etxe eta famili erantzukizunen banaketari buruzkoa. Horretarako, Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten zuten emakumeei erantzukizun horiek nola kudeatzen ziren galdetu zitzairen. Eta 6. taulan eta 4. grafikoan ikusten denez, 100eko ia 51 emakumek (112k) erantzukizun horiek era bakarrera berenganatu eta kudeatzen dituzte, banaka.

Etxe eta famili lanetako erantzunkizuna	Guztira	Ehuneakoak
Lan guztiak nik egiten ditut	112	50,9
Konpartituta	28	12,7
Bikotekideak lagunduta	34	15,5
Familiakoek lagunduta	46	20,9
Beste pertsona batzuek egiten dituzte		
Ed/Ede	8	
Guztira	228	100

6. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen Etxe eta Famili Lanetako Erantzukizunaren banaketa. Guztirakoak eta ehuneakoak. 2004.



4. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen Etxe eta Famili Lanetako Erantzukizunaren banaketa. Ehunekoak. 2004.

Adierazle horri "familiakoek lagunduta" erantzunen %20,0 (46) gehitu behar zaio. Bertan beharbada ondoriozta daiteke ezen era berean famili harreman horien barruan emakumeak (alabak) daudela.

Aitzitik, gizonen etxe eta famili lanotako partaidetza detektatu da, oraindik emakumearen kudeaketapekoa, gainerakoa (%28,2 = 62): haiek konpartitzen dituzte edo haiek egiten laguntzen dute.

Emaitzon arabera esan daitekeenez, lanak oraindik generoaren arabera banatzen dira eta emakumeari bakarrik atxikitzen zaio, edo funtsean, ugaltze-eszenategia (etxea eta familia).

Ziur gaude aurretik aipaturiko parte-hartzaileen batezbesteko adina eta horrelako adierazkariak, eta haien ikasketa mailak, eta , jarraian ikusiko dugun bezala, haien jarduera nagusia, Bizkaiko nekazari aldeetako jardueren sexu bereizketa hau txarragotzen duten gizarte faktoreak dira.

4.2. Emakumeen jardueraren ezaugarriak

Atal honetan, galdera-sortako 06 zenbakiko G-tik 104 zenbakikorainoko galderai dagozkien emaitzak aurkeztuko dira. Emaitzotan ikus daiteke zein diren azterketa honetan parte hartu duten Bizkaiko emakumeen nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueraren ezaugarri nagusiak.

4.2.1 Jarduera nagusia eta nekazaritzako Gizarte Segurantzarenganako kotizazioa


7. taulan eta 5.grafikoan ikus daitekeenez, azterketa honetan parte hartu duten 100eko 46,7 (106) emakumek etxeko lanak dituzte ardura nagusi.

Horrelako emakumeak gehienak dira. Kopuruz bigarrenak dira nekazaritzan edo/eta abeltzaintzan bakarrik jarduten duten emakumeak (%20,7 = 47). Eta, azkenik, 100eko 15,4 (35) emakumek adierazi dute erretiratuta daudela edo pentsiodunak direla.

Emakumeen jarduera nagusia	Guztira	Ehunekoak
Arduraldi eskusiboa	47	20,7
Beste jarduera bateko langilea	22	9,7
Etxeko lanak	106	46,7
Langabezia	3	1,3
Pentsiozko	35	15,4
Beste egoera batzuk	14	6,2
Ed/Ede	1	
Guztira	228	100

7. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen jarduera nagusia. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

Galdera-sortan galdera bat sartu zen honakoa jakiteko: zenbat emakume zebilen Nekazaritzako Gizarte Segurantzari kotizatzen. Eta 8. taulan ikus daitekeenez, parte hartu duten 100eko 52,6 (120) emakumek nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen diote, eta gainerakoek (%47,4k = 108k) ez.



5. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen jarduera nagusia. Ehunekoak. 2004.


Nekazaritzako Gizarte Seg.antzarenganako kot.	Guztira	Ehunekoak
Bai	120	52,6
Ez	108	47,4
Ed/Ede		
Guztira	228	100

8. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioa. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

9. taulako eta 6. grafikoko emaitzen arabera, halako goranzko joera bat ikus daiteke azterketa honetan parte hartu duten emakumeak Nekazaritzako Gizarte Segurantzari kotizatzen hasteari buruz. Horrela, kotizatzen duten 100eko 41,7 (45) azken hamar urteetan hasi dira kotizatzen, hau da, 1995 eta 2004 bitartean kotizatu dute

Nek.ko G.S.antzarentzako kotizazioaren hasiera	Guztira	Ehunekoak
1971a baino leh.	7	6,5
1971 - 1984	20	18,5
1985 - 1994	36	33,3
1995 - 2004	45	41,7
Ed/Ede	12	
Guztira	120	100

9. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioko antzinatasuna. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.




6. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioko antzinatasuna. Ehunekoak. 2004.

10. taulan eta 7. grafikoa bi aldagaiko azterketa egin da nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten Bizkaiko landa-sektoreko emakumeen jardura nagusia zein den jakiteko.

Horrela, bi gertaera nabarmendu dira: lehenik, nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten emakumeen kopururik handiena (%43,3 = 52) etxeko lanak jardura nagusi dituztenen artean bilduta dago; eta bigarrenik, nekazaritza- edo/eta abeltzaintza-jardura ardura nagusi duten emakumeak oso alde txikiz daude: 100eko 39,2 (47).

Jardura nagusia	Guztira	Ehunekoak
Ardualdi eskusib.	47	39,2
Beste jard. bateko langilea	8	6,7
Etxeko lanak	52	43,3
Pentsiozko erretiroa	2	1,7
Beste egoera batzuk	11	9,2
Guztira	120	100

10. taula. Nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten Bizkaiko landa-sektoreko emakumeen jardura nagusia. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.



7. grafikoa. Nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten Bizkaiko landa-sektoreko emakumeen jarduera nagusia. Ehunekoak. 2004.

Alabaina, izan daitekeena da nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten emakumeen jarduera nagusiaren ehunekoetako banaketa hori etxeko lanetan aritzen direnen kopuru handiak zehaztuta egotea. Horregatik, 11. taulan azalduta dago jardueren barruko erkapena. Horrela jakin daiteke zenbaterainokoa den nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazio maila barnetik kategoria bakoitzean.

Lehenik nabarmendu behar denez, nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueretan bakarrik aritzen diren 100eko 100 emakumeek nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen diote. Eta 100eko 41,1ek etxeko lanak dituzte jarduera bakar.

Emakumeen jarduera nagusia	Guztira	Giz. Seg.arentzako kotizazioa	Ehunekoak
Ardur. Esklusiboa	47	47	100,0
Beste jarduera bateko lang.	22	8	36,4
Etxeko lanak	106	52	49,1
Langabezia	3		
Pentsiozko Erret.	35	2	5,7
Beste egoera batzuk	14	11	78,6
Ed/Ede	1		
Guztira	228	120	52,6

11. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen jarduera nagusiaren eta nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioa. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

4.2.2 Ustiategiaren ekoizpen orientazio nagusia


Galdera-sortako 08G galderan informazioa eskatu zen emakumeak arduratzen ziren ustiategiaren ekoizpen-orientazio nagusiari buruz. Nekazaritzako ekoizpena eta abeltzaintzako ekoizpena bereizi dira, bi eremu handiak direlako. Biok jarduera-azpiarlotan banakatu ziren. Azkenik, haien neurria jakin nahi zen, azalerari edo abelburu kopuruari dagokiona.

12. taulan eta 8. grafikoan ikus daitekeenez, 100eko 60,2 (136) emakumek abeltzaintza-ekoizpenean jarduten dute; eta 100eko 12,8k (29k), nekazaritzako ekoizpenean. Gainerakoak (%27,0 = 61) mistotzat hartu ahal dira.

Emakume gutxiago daude nekazaritza-ekoizpenean. Baina oraindik haien hondakin-izaera nabarmendu da txakolinaren kasuan.


Jarduera nag. ustiapena	Guztira	Ehunekoak
Nekazaritza	29	12,8
Abeltzaintza	136	60,2
Mistoa	61	27,0
Ed/Ede	2	
Guztira	228	100

12. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen ustiategiaren ekoizpen-orientazio nagusia. Guztirakoak eta ehunekoak. 2.004.



8. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen ustiategiaren ekoizpen-orientazio nagusia. Ehunekoak. 2004.


Aurrekoa kontutan harturik, 9. grafikoan emaitzak laburbildu dira, eta jarduera-azpikategorien arteko bereizketa egin da parte hartu duten emakumeen ustiapenean. Horrela, emakumeen jardueran abeltzaintza nagusi da, logikoa den bezala. Bertan ikusi denez, 100eko 51,8 emakumek gutxienez haragitarako behiena agertzen dute jarduera gisa. Era berean, garrantzitsuak dira gizentzeko behien (%25,4), ardien eta ahuntzen (%24,6) eta txerrien, hegaztien eta abarren (%21,5) kasuak.



9. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen ustiategiko ekoizpen-jarduerak. Ehunekoak. 2004.

Azkenik, bi aldagaiko azterketa benetan esanguratsua egin da. Izan ere, beraren bitartez bistaratu ahal dira emakumeen adin-profilak ustiategiaren orientazioaren arabera. Horrela, 10. grafikoa hiru gertaera hauek nabarmen daitezke: lehenik, emakumeen adin-tarte guztietan abeltzaintza-orientazioa nagusi da; bigarrenik, zenbat eta urte gehiago duten, hainbat eta abeltzaintzari begira orientatuago egon daitezke parte hartu duten emakumeak; eta hirugarren eta azkenik, 31-40 urteko emakumeen presentzia handiagoa egiaztatu da nekazaritzako ustiategietan (%21,9).

Azkenik, atal hau bukatzeko koerlazioa ezartzea egokietsi da, nekazaritzako gizarte segurantzari egun kotizatzen dion emakume kopuruaren eta ustiategiaren jardura nagusiaren artekoa.




10. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen ustiategiaren ekoizpen-orientazio nagusia eta haien adina. Ehunekoak. 2004.

13. taulan eta 11. grafikoa orokorrean ikus daitekeenez, aurretik adieraziriko ustiategiaren jardura nagusikako banaketa berriz dago. Izan ere, kotizatzen duten 100eko 59,7 (71) emakumek abereak ustiatzen jarduten dute; 100eko 24,4 (29) emakume ustiapen mistoetan dabilta; eta gainerakoak (%16,0 = 19) nekazaritzari begira orientaturiko emakumeak dira.

Jard. Nagusia ustiapena	Guztira	Ehunekoak
Nekazaritza	19	16,0
Abeltzaintza	71	59,7
Mistoa	29	24,4
Ed/Ede	1	
Guztira	120	100

13. taula. Nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten eta Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiategiaren ekoizpen-orientazio nagusia. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.



11. grafikoa. Nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten eta Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiategiaren ekoizpen-orientazio nagusia. Ehunekoak. 2004.

Alabaina, Bizkaian abeltzaintza-ekoizpenari begira dauden emakumeen kopuru handia kontutan hartuta, 13. taulan ikus daiteke ezen, hala ere, barruko ikuspegitik, emakumezko abeltzainak ez direla nekazaritzako gizarte segurantzari gehien kotizatzen diotenak: %52,2 bakarrik. Nekazaritzari begirakoak, ordea, %65,5 dira.

Azkenik, ustiapen mistoei begira dauden emakumeak dira nekazaritzako gizarte segurantzari gutxien kotizatzen diotenak, guztirakoaren %47,5.

Jarduera nagusia ustiapena	Guztira	Giz. Seg.arentzako kotizazioa	Ehunekoak
Nekazaritza	29	19	65,5
Abeltzaintza	136	71	52,2
Mistoa	61	29	47,5
Ed/Ede	2	1	
Guztira	228	120	52,6


13. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiategiaren ekoizpen-orientazio nagusiaren eta nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzearen arteko erlazioa. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

4.2.3 Ustiapenaren Gehiengodun Araubidea eta Titulartasun/Titularkidetasuna.

14. taulak eta 12. grafikoak argitasunez erakusten dutenez, jabetza da ustiapen-araubide nagusia Bizkaiko landako sektorean lan egiten duten emakumeen artean (guztirakoaren %74,1 = 166). Eta araubide horri jabetzak errentaturik dauden kasuak gehituz gero, ia 100eko 93,0 (208) dira guztira.

Ustiategia eukitzeko araubidea	Guztira	Ehunekoak
Jabetza	166	74,1
Errentamendua	42	18,8
Erdirakoa	2	0,9
Beste batzuk	5	2,2
Jabetza eta Errentam.	9	4,0
Ed/Ede	4	
Guztira	228	120

14. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiategia edukitzeko araubide gehiengoduna. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.



12. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiategia edukitzeko araubide gehiengoduna. Ehunekoak. 2004.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Sailaren Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Unitateak Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailarekin eta Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintza sektorearekin zerikusia duten beste erakunde batzuekin elkarlanean sustaturiko sentsibilizazio-neurriak abian jarrita, Parekatuz Proiektuaren barruko Emakume eta Landa-mundu Batzordearen Laberako Planaren barruan³, galdera bat (11. G) sartu zen, azterketa honetan parte hartu duten emakumeen titulartasuna edo/eta titularkidetasuna eta, bere bidezko neurrian, ekintzon eragina jakiteko. Emaitzak 15.taulan azalduta daude.

Ustiategiaren titulart.	Guztira	Ehunekoak
Titularra	203	90,6
Titularkidea	21	9,4
Ed/Ede	4	
Guztira	228	120

15. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiategiko titulartasuna edo/eta titularkidetasuna. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

Alabaina, parte hartu duten emakumeen atzipena ahalbidetu duen informazioaren jatorria edo iturria kontutan harturik, haiek Nekazaritzako Ustiategien 2004ko Erregistroan presente egoteak esan gura du ezen ustiategiaren titular edo/eta titularkideak direla. Eta hori horrela islatu da emaitzetan: azterketa honetan parte hartu duten 100eko 90,6 (203) emakume ustiategiaren titular eta gainerakoak (100eko 9,4 = 21) titularkideak dira.

Horregatik, eta, are, a posteriori, azterlan honetan ezarritako hurbilketa-estrategia metodologikoa ez bide da neurri handi batean Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako ustiategien ardura duten emakumeen titulartasuna edo titularkidetasuna atzitzen laguntzeko sustaturiko erakundeen ekintzen eragina edo eraginkortasuna detektatzeko egokiena. Labur bildurik, oraindik nekez ikusi ahal den errealitatea uneotan ikusi ahal izateko beste estrategia batzuk jarri beharko lirarteke abian, izaera kualitatiboagoak beharbada.


4.2.4 Jarduerako antzintasuna

16. taulan eta 13. grafikoan bost segmentutan taldekatu dira Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeek ustiatzen emandako urteak.

Ikus daitekeenez, 100eko 51,3 (98) emakumek 20 urte baino gehiago daramatzate ustiategia ustiatzen. Talde horretan sartu ahal dira ez dakiten edo erantzuten ez duten hogeita hamazazpietariko (37) asko. Alde batetik, kontutan hartu behar da parte-hartzaileek batez beste urte asko dituztela. Bestetik, geroago adieraziko den bezala, bai ustiategiaren famili jatorria bai famili tradizioak emakumeak hura mantentzen iraute horretan duen garrantzia kontutan hartu beharra dago.

Ustiatzen emandako urteak	Guztira	Ehunekoak
<6	24	12,6
6 - 10	23	12,0
11 - 20	46	24,1
21 - 35	34	17,8
>35	64	33,5
Ed/Ede	37	
Guztira	228	120

16. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiategiko antzintasuna. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004 (urteak).




13. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiategiko antzinasuna. Ehunekoak. 2004 (urteak).

Denbora-dimentsioko informazio hori aprobeztaturik, 17. taulan eta 14. grafikoan ikus daiteke emakumearen ustiategiko antzinasunaren eta ustiategiaren orientazio nagusiaren artean dagoen erlazioa. Bi dira gertaerarik nabarmengarrienak. Lehenik, banaketa heterogeneoagoa egiaztatu da nekazaritza-ustiategien urte-tarteen artean. Horren arabera, gaztetasun handiagoa dago jarduera-adar horretan. Izan ere, azterketa honetan parte hartu duten 100eko 44 (11) emakumek 10 urte edo gutxiago daramatzate ustiategia ustiatzen.

Eta, bigarrenik, alderantzizko kontua gertatu da nekazaritzako ustiategi eta ustiategi mistoetan jarduten duten emakumeen kasuetan. Egin-eginean, emaitzak 35 urtetik gorako tartean bildu da, %32,5ekin (37) eta % 45,1ekin (23), hurrenez hurren.

Ustiatzen emaniko urteak	Nekazaritza	Abeltzaintza	Mistoa	Guztira
<6	5	13	6	24
6 - 10	6	11	6	23
11 - 20	7	28	10	45
21 - 35	3	25	6	34
>35	4	37	23	64
Guztira	25	114	51	190

17. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiategiko antzinasuna, jardueraren orientazio nagusiaren arabera. Guztirakoak. 2004 (urteak).



14. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiatetikiko antzintasuna, jardueraren orientazio nagusiaren arabera. Ehunekoak. 2004 (urteak).

Hori guztia ikusita ondorioztatu ahal denez, Bizkaiko ustiategi misto eta abeltzaintzakoetan lan egiten duten emakumeek zahartze-tasa altuagoa agertzen dute. Nekazaritza adarrean emakumezko gazte gehiago daude. Hala ere, jarduera horretan emakume aktiboen kopururik txikiena dago bilduta.

4.2.5 Ustiatagia egunero ibiltzeko arduraduna

Azterketa honetan parte hartu duten 100eko 69,6 (158) emakumek beren burua nekazaritza edo/eta abeltzaintzako ustiatagia ibiltzeko zuzeneko arduraduntzat dute, eta gainerakoek (100eko 30,4 = 69k) ez dute uste postu hori dutenik.

Ustiatagia egunero ibiltzeko arduraduna	Guztira	Ehunekoak
Bai	158	69,6
Ez	69	30,4
Ed/Ede	1	
Guztira	228	100

18. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeak, ustiatagia egunero ibiltzeko arduradunak direnak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

Ustiatagia egunero ibiltzeko arduradunak ez direla adierazi duten emakumeei dagokienez, 19. taulan ikus daiteke ezen, gehienetan, arduraduna familiako beste pertsona bat dela, 100eko 97,1 kasutan. Bi (2) emakumek adierazi dute ezen kudeaketa horretan enplegatuak daudela.

Perts. arduraduna	Guztira	Ehunekoak
Senidea	67	97,1
Enplegatua	2	2,9
Beste pertsona bat		
Beste pertsona bat		
Ed/Ede		
Guztira	69	100

19. taula. Ustiatagia egunero ibiltzeko pertsona arduradunak, arduraduna emakumea ez denean. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

4.2.6 Jardueraren famili jatorria

20. taulan ikus daitekeenez, azterketa honetan parte hartu duten 100eko 89,0 (202) emakume aurretik horrelako jardueretan jardun duten familiengandik datoz. Hortaz, Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueretan jarduten duen eta landako kultura eta sozializazioa bereziki duen emakume profila dago egun.

Beste alde batetik, 100eko 11,0 (25) kasutan emakumeak ez datoz zuzenean landa-kulturatik.

Ustiatagian jarduten duen familiarengandik dator	Guztira	Ehunekoak
Bai	202	89,0
Ez	25	11,0
Ed/Ede	1	
Guztira	228	100

20. taula. Bizkaiko landa-sektoreko emakumeak lanean dabiltzan ustiategiaren famili jatorria. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

Gainera, landa-eremuan famili tradizioetik datozen emakume horiei buruz 21. taulan adierazita dagoen bezala, 100eko 78,2 (147) emakumeek famili ustiategiarekin jarraitzen dute. Gainerakoak, (%21,8 = 41), nekazaritza edo/eta abeltzaintzako kulturaren sozializatu arren, beren zuzeneko familatik zuzenean ez datorren nekazaritza edo/eta abeltzaintzako bestelako ustiapenean ari dira.

Famili ustegiarekiko jarraitasuna	Guztira	Ehunekoak
Bai	147	78,2
Ez	41	21,8
Ed/Ede	14	
Guztira	202	100

21. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen famili ustiategiko jarraitasuna. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

4.2.7 Ardura ekarri zuen arrazoi nagusia

Aurretik adieraziriko famili jatorriko ustiategiaren indize altuari oso loturik ez bairik gabe, 22. taulan ikus daiteke ezen famili tradizioan bilduta daudela Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako ustiategietan egun lan egiten

duten emakumeen presentzia zehaztu duten 100eko 61 (139) arrazoi.

Famili marko horren barruan sartu ahal dira, alde batetik, burutzen duten nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jarduera ugaltze gune horretarako laguntza dela adierazi duten emakumeak (100eko 6,1 = 14), eta, beste alde batetik, landa-ingurunean maitasunezko batasunaren ondorioz (bereziki, ezkontzaren ondorioz) daudela eta batasun horretan gizona nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jarduerari begira orientatuta zegoela adierazi duten emakumeak (%5,3 = 12). Emakume horiek guztiak sartuz gero, Bizkaiko landako eremuan uneotan dauden 100eko 72,4 (165) emakume bertan etxe, famili eta maitasun kontuagatik daude.

Ustiategiko arduraren arrazoi nagusiak	Guztira	Ehunekoak
Famili tradizioa	139	61,0
Lan-irteera	37	16,2
Gustua, aisia	19	8,3
Familiarentzako diruzko laguntza	14	6,1
Maitasuneko harremanen ondoriozkoak	12	5,3
Lurzatiak garbitzea		2,2
Enpleguz aldatu beharra	2	0,9
Guztira	228	100

22. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen famili ustiategiko ardura eragin duen arrazoi nagusia. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

Enpleguaren arrazoi nagusietako gainerako %27,6ko askoren arabera (%16,2 = 37), emakumeek jarduera hori lan-irtenbide izan zuten eta 100eko 8,3 (19) emakumek hori aisiatzat hartu dute, astialdia emateko eratzat, gustatzen zaielako eta beren burua garatu gura dutelako.

Azkenik, bi (2) emakumek bizi-tankera hirikoagoa haustea erabaki zuten, eta beren jarduera landa-munduan burutzea.

4.3. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duen emakumearen beharrizan nagusiak

Galdera-sortako 16. G galdera Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueretan jarduten duten emakumeen iritzia jakiteko lehenengo gunea izatekoa zen. Kasu horretan, landa-emakume gisa ukitzen zituen beharrizan nagusia azal zezaten eskatu zitzaien.


23. taulan eta 15. grafikoan zazpi kategoriatan laburtu dira emandako erantzunak. Bi beharrizan maila ezarri ahal dira. Lehenik, nekazaritza edo/eta abeltzaintzako ustiategiaren maila hertsiko beharrizanak ditugu, hau da, jardueraren errentagarritasun urriagatik (%11,4) diruzko laguntza gehiago eskatzea (%28,1).

Bigarrenik, galdera-sortan parte hartu duten emakumeen genero izaeraren (emakumezkoa) mailako beharrizanak ditugu, honakoa kasu honetan: emakumeek ugaltze (etxea eta familia) eta ekoizpen (nekazaritza edo/eta abeltzaintzako ustiapena) eszenategietan egin behar dituzten lanen dualtasuna (%22,8) kudeatzeko laguntza handiagoak eskatzea. Hori iritziekin zuzenean loturik dago. 100eko 20,2 emakumek adierazi dute ezen astialdirik ez dutela, lasai egoteko denborarik ez dutela, lan-dualtasun hori dela eta.

Azkenik, iritzia kontutan harturik, 100eko 11,4k emakumeek Bizkaiko landa-ingurunean egiten duten jarduera hobeto aintzatesteko eskatu nahi diote gizarteari. Izan ere, dirudienez, haiek kulturalki ugaltze-guneari atxikita daudelako beharbada, ez da behar bezain nabarmenki kontutan hartzen emakumeak ingurune hori, orokorrean, eta, zehazki, bertako ustiategiak mantentzen betetzen duen funtzioa. ⁴

Bizkaiko landa emakumearen beharrizan nagusia	Guztira	Ehunekoak
Diruzko laguntzak	32	28,1
Etxe eta famili laguntza	26	22,8
Astialdi falta	23	20,2
Gizarte aintzatespen handiagoa	13	11,4
Errentagarritasun urria	13	11,4
Prestakuntza	4	3,5
Informazio	3	2,6
Guztira	114	100

23. taula. Bizkaiko nekazari aldeetako emakumeen beharrizan nagusiak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.



15. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetako emakumeen beharrizan nagusiak. Ehunekoak. 2004.

⁴ Ildo horretatik, ikus EUROPAKO BATZORDEaren azterlana. NEKAZARITZA ZUZENDARITZA NAGUSIA. Emakumeek landa-garapenean hartzen duten partea. Europako landa munduarentzako benetako etorkizuna. Europako Batzordea. 2002.

4.4. Nekazaritza edo/eta abeltzintzako jarduerarekiko gogobetetasun maila

Aurreko beharrizanak kontutan harturik, galdera-sortako 17. G galderan emakumeei modu zuzen eta itxiagoan galdetu zitzairen lau iritzi-eremu zehatzekiko beren gogobetetasun mailaz. Eremu horiek azterlanaren sustatzaileak emandako lehentasunak kontutan hartuta aukeratu ziren. Lau eremu horiek honakook ditugu:

1. Produktuak merkaturatzearekiko gogobetetasun maila.
2. Diruzko laguntzak eskuratzearekiko gogobetetasun maila.
3. Landako emakumeari laguntzearekiko gogobetetasun maila.
4. Eta, azkenik, ustiategiaren titulartasuna eta titularkidetasuna atzitzeko egindako laguntza-ekintzekiko gogobetetasun maila.

24. taulan eta 16. grafikoan modu erkatuan erakusten dira emaitzak. Gogobetetasunik ezaren hierarkia ikus daiteke. Horrela, antza denez, erakundeek Bizkaiko landako emakumeari oro har eman izan dioten laguntzak gogobetetasunik ezeko emaitza altuagoak agertzen ditu. Izan ere, parte hartu duten 100eko 56,5 (117) emakume ez daude batere pozik. 100eko 16,6 (32), aldiz, nahiko edo guztiz pozik azaldu dira.


Emakumeek beren produktuak merkaturatzeko egungo egoera aipatu dute gogobetetasunik ezaren bigarren elementu bezala. Egin-eginean ere, parte hartu duten 100eko 42,5 (85) emakume ez daude batere pozik. 100eko 22,0 (44), ordea, nahiko edo guztiz pozik azaldu dira.

Diruzko laguntzak atzitzea gogobetetasunik ezaren hirugarren maila dago. Izan ere, parte hartu duten 100eko 36,6 (78) emakumek adierazi dute ez daudela gai horrekin batere pozik. 100eko 27,3 (58), aldiz, nahiko edo guztiz pozik azaldu dira.

Eta azkenik, kontutan hartu behar dira Bizkaiko Foru Aldundiak eta beste erakunde batzuek emakumeen ustiatzei begirako titulartasuna eta titularkidetasuna sustatzearen alde egindako sentsibilizazio-ekintzak. Haien eragina edo ondorea ezagutu gura da. Ildo horretatik, parte hartu duten 100eko 27,6 (51) emakume ez daude batere pozik. 100eko 37,3 (69), oster, nahiko edo guztiz pozik azaldu dira, antza.

Gogobetetasun maila	Produktuak merkaturatzea	Diru-laguntzak atzitzea	Landa emak. laguntza	Titular/kide/tasuna laguntza
Pozik batere ez	85	78	117	51
Apur bat pozik	71	77	58	65
Nahiko pozik	35	44	20	50
Guztiz pozik	9	14	12	19
Ed/Ede	28	15	21	43
Guztira	228	228	228	228

24. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, produktuak merkaturatzearekikoa, diruzko laguntzak atzitzearekikoa, landako emakumeari laguntzearekikoa eta titulartasun/titularkidetasuna sustatzen laguntzearekikoa. Guztirakoak, 2004.




16. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, produktuak merkaturatzearekikoa, diruzko laguntzak atzitzearekikoa, landako emakumeari laguntzearekikoa eta titulartasun/ titularkidetasuna sustatzen laguntzearekikoa. Ehunekoak, 2004.

Gure iritziz, eta emaitzoi esanguratsutasuna kendu barik, zelanbait, beraiek arindu behar dira, gizarte garatuetan eta, beraien artean, modu esanguratsuan gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoan uneotan finkatuta dagoen "ongizatearen kultura" kontutan harturik. Ongizatearen kultura horren neurrietako bat erakundeei mota orotako erraztasunak eskatzeko joeran islatu da.


4.4.1 Landako emakumearentzako laguntzarekikoa

Antza, sakon aztertu beharko lirateke alderdiok banaka, azterketa orokor honen emaitzen arabera gogobetetasunik ezeko guneak lehenengoz detektatze horri jarraiki. Alabaina, aipatutako interes-eremuei buruz gogobetetasunik ezeko adierazpenik gehien eman duen Bizkaiko landa-sektoreko emakume nekazari edo abeltzainaren mota-profila zein den detektatzea egokietsi da.


Ildo horretatik, lau aldagairekin koerlazioak egin dira. Aldagai horiek ondorengook dira: adin-taldea, jardueraren ekoizpen-orientazioa (nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa edo mistoa), nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioa eta emakumearen jarduera nagusia.




17. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, landako emakumearentzako laguntzarekikoa eta adinaren arabera. Ehunekoak, 2004.



18. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, landako emakumearentzako laguntzarekikoa eta orientazioaren arabera. Ehunekoak, 2004.



19. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, landako emakumearentzako laguntzarekiko eta nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioaren arabera. Ehunekoak, 2004.




20. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, landako emakumearentzako laguntzarekikoa eta jarduera nagusiaren arabera. Ehunekoak, 2004.


Landako emakumeari laguntzeko neurriekiko gogobetetasun mailarekin hasirik 17., 18., 19. eta 20. grafikoetatik ondoriozta daitekeenez, zenbat eta urte gehiago eduki, hainbat eta gogobetetasunik ezaren maila txikiagoa dute laguntzeko ekintzokiko; nekazaritzako ustiatzietan lan egiten duten emakumeek gogobetetasunik ez txikiagoa agertu dute (100eko 46,2 ez zeuden batere pozik), abeltzaintzako ustiatzietan eta mistoetan daudenek baino; nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizatzaile izan edo ez izateak ez dakar interpretazio-elementurik; eta berdin gertatzen da emakumeen jarduera nagusiarekin, erretiratu edo pentsiodunenarekin izan ezik, adinaren kasuan adierazi den bezala.

4.4.2 Produktuak merkaturatzearekikoa


21., 22., 23. eta 24. grafikoetan zenbait emaitza ikus daitezke, landako emakumearentzako laguntzari begirako berriarazko arauari jarraitu bai baina gogobetetasunik ezaren maila txikiagoak ekartzen dituztenak. Horrela, adinean aurrera egin ahala, gero eta zabalagoak dira gogobetetasunik ezeko ehunekoak, eta nekazaritzan lan egiten duten emakumeengan gogobetetasunik ez txikiak daude (100eko 23,1 ez daude batere pozik). Alabaina, oraino honetan produktuak merkaturatzeko egungo egoerari buruzko gogobetetasunik ezaren maila altuagoak bide daude nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten emakumeen artean (%47,3), eta nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueran bakarrik aritzen direnen artean (100eko 54,8 ez daude batere pozik).




21. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, produktuak merkaturatzearekikoa eta adinaren arabera. Ehunekoak, 2004.



22. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, produktuak merkaturatzearekikoa eta ustiategiaren orientazioaren araberakoa. Ehunekoak, 2004.



23. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, produktuak merkaturatzearekikoa eta nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioaren araberakoa. Ehunekoak, 2004.




24. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, produktuak merkaturatzearekikoa eta jarduera nagusiaren araberakoa. Ehunekoak, 2004.


4.4.3 Diruzko laguntzekikoa

Bizkaiko landa-sektoreko diruzko laguntzak gogobetetasunik ezaren erregistro txikienak iritsi dituzten lau eremuetan hirugarren jarri dira.


25., 26., 27. eta 28. grafikoetan honi buruzko emaitzak islatu dira. Nabarmentzekoa denez, 60 urtetik gorako emakumeek azaldu dituzte adin-talde guztietarik gogobetetasunik ezaren mailarik altuenak. Kasu honetan, aurreko eremuetan ez bezala, emakumezko abeltzainek (100eko 30,4 ez daude batere pozik) emakumezko nekazariek (100eko 35,7 ez daude batere pozik) baino gogobetetasunik ezaren maila txikiagoak agertzen dituzte. Nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioa ez da ildo horretatik aldagai baztertzaila. Eta, azkenik, nekazaritzako edo abeltzaintzako lanetan bakarrik jarduten duten Bizkaiko emakumeek agertzen dute diruzko laguntzekiko gogobetetasunik ezaren portzentajetik txikiena. Egin-eginean ere, haietarik 100eko 22,7 besterik ez dago batere pozik, eta beste jarduera batean aritzen direnen artean 100eko 57,1 ez daude batere pozik.




25. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, diruzko laguntzak atzitzearekikoa eta adinaren arabera. Ehunekoak, 2004.



26. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, diruzko laguntzak atzitzearekikoa eta ustiategiaren orientazioaren arabera. Ehunekoak, 2004.



27. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, diruzko laguntzak atzitzearekikoa eta nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioaren araberakoa. Ehunekoak, 2004.




28. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, diruzko laguntzak atzitzearekikoa eta jarduera nagusiaren arabera. Ehunekoak, 2004.

4.4.4 Titulartasun/titularkidetasuna sustatzeko ekintzekikoa.


24. taulan adierazi den bezala, Bizkaiko Foru Aldundiaren Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Unitateak ezarritako ekintzak, hartzen izan diren ustategietako haien titulartasuna edo/eta titularkidetasuna atzitzea sustatu nahi izan direnak, laugarren postuan daude gogobetetasunik ezaren mailari dagokionean.

Balorazio horren garrantzizko emaitzetako bat ez dakien edo erantzun ez duen emakume kopuruan bildu da. Hori guztira 43 emakumeri gertatu zaie. Horrek erakuts dezakeenez, Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakume askok ez dute zabalkunde eta sentsibilizaziorako ekintzon berririk jakin eta, horregatik, zabalkunde-ekintzaren eraginkortasun maila altua agertu dute, edo alderdi honek ez ditu kezkatu edo ez zaie interesatzen.


Horrenbestez, 29 . grafikoa ikus daitekeenez, gogobetetasunik ezaren ehunekoak altuenak 51. urtetik gorako emakumeen artean bilduta daude. Beroriek dira, beharbada, Bizkaian nekazaritza edo/eta abeltzaintzako ustategien titulartasuna edo titularkidetasuna atzitzeko oztopoak gehien ezagutzen dituzten eta jasan dituztenak. Izan ere, kontutan hartu behar dira haien sozializazio-prozesua eta ohiturak, duela berrogeita hamar urtetatik Bizkaiko landa-munduaren baitan jarraitu eta hartu dituztenak. 40 urtetik beherakoen gogobetetasun portzentajeak, aldiz, gogobetetasunik ezarenak baino altuagoak dira.




29. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, titulartasuna eta titularkidetasuna sustatzearekikoa eta adinaren arabera. Ehunekoak, 2004.



30. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, titulartasuna eta titularkidetasuna sustatzearekikoa eta ustiategiaren orientazioaren araberakoa. Ehunekoak, 2004.



31. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, titulartasuna eta titularkidetasuna sustatzearekikoa eta nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioaren araberakoa. Ehunekoak, 2004.



32. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, titulartasuna eta titularkidetasuna sustatzearekikoa eta jarduera nagusiaren arabera. Ehunekoak, 2004.

Eta gainerako 30., 31. eta 32. grafikoetan ikus daitekeen bezala, ustiategiaren ekoizpen-orientazioak, nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioak eta Bizkaiko landa-sektorearekin loturiko emakumearen jarduera nagusiak ez dakarte azaltzeko elementurik.

4.5 Bizkaiko landa-jardueran genero-diferentziak egotea

Bizkaiko landa-sektorearen barruan generoaren arabera diferentzia esanguratsua detektatzeko helburuz, parte hartu duten emakumei eremu honetan gizon eta emakumeen artean diferentzia esanguratsurik dagoen galdetu zaie galdera-sortako 15. G galderan. Horren emaitzak 25. taulan islaturik daudenak dira.

Gizon eta emakumeen arteko diferentziak	Guztira	Ehunekoak
Bai	80	39,4
Ez	123	60,6
Ed/Ede	25	
Guztira	228	100

25. taula. Bizkaiko landa-sektorearen barruan gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun handiak egotea, Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ikuspuntutik. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

Beren ikuspuntutik, emakumeotarik 100eko 60,6k (123k) uste dute ezen ez dagoela ezberdintasun handirik gizon eta emakumeen artean Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako lanean. 100eko 39,4k (80k) uste dute ezen badaudela ezberdintasun esanguratsua.

Ildo horretatik, ezberdintasunak daudela adierazi duten emakumei dagokienean, 26. taulan argitasunez ikus daiteke ezen ezberdintasun horiek bi alderdietan bilduta daudela: lehenengo alderdia, garrantzikoena, "lan-dualtasuna" deiturikoari buruzkoa da. Izan ere, landa-sektorean lan egiten duten eta galdera horri erantzun dioten 100eko 43,8k (21k) uste dute ezen emakumezkoek bai ugaltze-eszenategian (etxean eta familiaren baitan) bai ekoizpen-eszenategian (kasu honetan, nekazaritza edo/eta abeltzaintzako ustiategi) egiten duten lan bikoitza dela arazoa.

Aurreko diferentziak berdin edo zeharka ukiturik ditu gure gizarteko emakume asko, beraien jarduera berdin delarik. Hori ez da landa munduaren eremu zehatzean lan-dualtasun horren zehaztasunak detektatzeko oztopo.

Hala ere, gizon eta emakumeak bereizten dituen elementu bezala agertu den alderdietariko bigarrena nekazaritza edo/eta abeltzaintzarekin hertsiki loturik dagoen gertaera bati buruzkoa: jarduera batzuetarako behar den indar fisikoari buruzkoa. Horrela, galdera horri erantzun dioten 100eko 31,3k (15ek) uste dute ezen hori funtsezko diferentzia dela. Bertan, gure iritzitan, beharbada sartu ahal da generoa bereizten duen hirugarren alderdia ere: makinaren erabilpena (%10,4).

Azkenik, nabarmendu behar denez, hiru kasutan (%6,3) adierazi dute emakumearen lanak nekazaritza edo/eta abeltzaintzako ustiapenean izaten jarraitzen duen aintzatespen urria. Eskari horrek gizarteari Bizkaiko landa-sektorean emakumea gehiago aintzatesteko lehen aipaturiko eskaria lotetsiko luke.

Zein dira giz. eta emak.en arteko diferentziak	Guztira	Ehunekoak
Lan dualtasuna	21	43,8
Indar fisikoa	15	31,13
Makinaren erabilpena	5	10,4
Titulartasunik eza	4	8,3
Aintzatespen urria	3	6,3
Guztira	48	100

26. taula. Gizon eta emakumeen arteko Bizkaiko landa-sektoreko diferentzia handien zerrenda. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

4.6 Prestakuntza

Talde zehatz batek egindako prestakuntza-ekintzak ezagutzea besteak beste ikaste iraukorren maila eta beronekiko interesa ezagutzeko lehenespenezko arreta-neurrietariko da.

4.6.1. Ikastaroak egitea

27. taulan ikus daitekeenez, azterketan parte hartu duten 100eko 78,2 (172) emakumeek ez dute egin modu batera edo bestera nekazaritza edo/eta abeltzaintza sektorearekin zerikusirik duen prestakuntza-ikastarorik.

Prestakuntza-jardueren burutzapena	Guztira	Ehunekoak
Bai	48	21,8
Ez	172	78,2
Ed/Ede	8	
Guztira	228	100

27. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeek Prestakuntza Ikastaroak egitea. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

Gainerakoek (100eko 21,8 =48k), aldiz, burutu egin dituzte prestakuntza-ekintzak. Eta 28. taulan ikus daitekeenez, inkesta egin zitzaizkien gehienez hiruna ikastaro jar zezaketela kontutan harturik, emakumeek eginiko ikastaroak benetan asko dira. Hala ere, baratzezaintza eta frutikultura (guztirakoaren %13,3), abeltzaintzako prestakuntza, behi-aziendari begirakoa (%10,0), gaztagintzari begirakoa (%8,3), fitosanitarioei buruzko ikastaroei begirakoa (%8,3), eta azkenik, ustiategia ekonomikoki kudeatzeko eta kontabilitateko prestakuntza (%8,3) bide dira emakumeek gehienbat parte hartu duten jarduerak.

4.6.2. Haien Onuragarritasuna baloratzea

29. taulan eta 33. grafikoan ikus daitekeenez, prestakuntza-ikastaroak 100eko 21,8 emakumek egin dituztela. Horietarik 100eko 78k haiek onuragarri eta oso onuragarritzat hartu dituzte; eta 100eko 22k, onura gutxikotzat.


Buruturiko prestakuntza-ikastaroak	Guztira	Ehunekoak
Baratzezaintza eta frutikultura	8	13,3
Abeltzaintzako prestakuntza (behia-zienda)	6	10,0
Kontabilitatea eta ekonomi kudeaketa	5	8,3
Gaztagintza	5	8,3
Fitosanitarioak	5	8,3
Ecologi nekazaritza	4	6,7
Inausketa eta txertaketak	4	6,7
Lore artea	2	3,3
Ekologia eta ingurumena	2	3,3
Hidroponia	2	3,3
Nekazaritzako hastapena	2	3,3
Elikagaiak eskuztatzea	2	3,3
Kontserbazio-tekninak	2	3,3
Artzain-txakurrak bezatu eta trebatzea	1	1,7
Agroturismoa	1	1,7
Merkaturapena	1	1,7
Behien gaixotasunak	1	1,7
Barazki eta frutak	1	1,7
Frutikultura	1	1,7
Internet	1	1,7
Gozogintza	1	1,7
Landare sendagarriak	1	1,7
Oilaskoak eta txerriak	1	1,7
Haragi-trasformazioa	1	1,7
Guztira	60	100

28. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeek egindako Prestakuntza Ikastaroen zerrenda. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

Elkarkeren batean hartzen den parte maila	Guztira	Ehunekoak
Oso onuragarriak	16	39,0
Onuragarriak	16	39,0
Urriki onuragarriak	9	22,0
Ed/Ede	7	
Guztira	48	100

Baina beharbada informazio garrantzitsuagoa da Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueri begira dauden eta prestakuntza-ekintzak egiten dituzten emakumeen mota-profila ezagutzeari buruzkoa. Horregatik, jarraian lau grafiko ikus ditzakegu. Haietan ezagutu ahal dira prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten emakumeon adin-tartea eta euren ustiatetik ekoizpen-orientazio nagusia, eta nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten eta ekoizpen horretan bakarrik jarduten dutenentz jakin daiteke.

Horregatik, 33. grafikoan nabarmentzekoa denez, adin-tarte guztietan altuagoak dira prestakuntza-ekintzarik egin ez duten emakumeen portzentajeak, horrelakoak egiten dituztenenak baino. Horrenbestez, 31 eta 40 urte bitarteko emakumeak dira prestakuntzarik handiena egiten dutenak, 100eko 45,2; 30 urtetik beherakoen eta 51 urtetik gorakoen portzentaje urrien aurrean.




33. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten eta prestakuntza-ikastaroak egiten dituzten emakumeen adina. Ehunekoak. 2004.


34. grafikoan argitasunez erakusten denez, nekazaritzako ustiatetik egiten dituzten emakumeak dira prestakuntza-ekintzetan gehienbat parte hartu dutenak (%48,3), abeltzaintzako ustiatetik egiten dituzten emakumeen aldean. Ildo horretatik, kontutan hartu behar da ezen nekazaritzako jarduerak Bizkaiko landa-sektoreko emakumerik gazteenak bildurik dituela.

35. grafikotik nabarmentzekoa denez, nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten emakumeak dira prestakuntza-ekintzetan gehienbat parte hartzen dutenak (%23,7), kotizatzaileak ez diren emakumeen aldean. Partaidetzarik eza ia %90ekoa da.


Eta, azkenik, 36. grafikoan ikus daitekeenez, nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueran bakarrik aritzen diren emakumeak dira gehienbat prestatu direnak (%40,9). Gainerako jardueretan %20tik beherako portzentajeak ikus daitezke. Haien artean ugariak honakook dira: etxeko lanak jardueran nagusi dituztenak (%14,7).



34. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten eta prestakuntza-ikastaroak egiten dituzten emakumeen ustiategiko ekoizpen-orientazioa. Ehunekoak. 2004.



35. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten eta prestakuntza-ikastaroak egiten dituzten emakumeen nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioa. Ehunekoak. 2004.



36. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten eta prestakuntza-ikastaroak egiten dituzten emakumeen jarduera nagusia. Ehunekoak. 2004.


4.6.3. Prestakuntzarik ez egitearen arrazoiak

Adierazi den bezala, emakume askok ez dute prestakuntza-jarduerarik egin, Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueretan lan egiten duten lau emakumetarik hiruk. Beraiei horren arrazoi edo kariei buruz galdetu zitzaion. 30. taulan eta 37. grafikoan ikus daitezke inkesta egin zaienek era irekian emandako erantzunen taldearen emaitzak. Argi eta garbi dagoenez, hiru faktore oztopatzaile nabarmendu dira. Lehenengoa (erantzunen %42,3) prestakuntza emakumeak egun egiten duen nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jarduerarako beharrezkoa ez delako usteari buruzkoa da. Bigarrena (%26,4) landa-sektorean lan egiten duten emakumeek horrelako prestakuntza-ekintzarik dagoen jakiteko informaziorik ez izatea da; eta hirugarrena (%14,3), denbora falta.

Bestetan, azken aldagai hori izaten da edozein talderi prestakuntza-ekintzetan parte hartzea ezinezko egiten dion kari nagusia. Kasu honetan haren lekua hirugarrena dela ikusita, alderdi bi dira arreta jarri beharrekoak: lehenik, zein mailan den benetakoa emakumeek garatzen duten jarduerarako prestatu beharrik ez izatearena; eta, bigarrenik, beharbada garrantzizkoagoa dena, zein puntutaraino dira egokienak dauden prestakuntza-ikastaroen sortari buruz egun dauden komunikazio bideak. Izan ere, dirudienez, kasu honetan, prestakuntzaren jasotzaileak diren emakumeei ez zaie informazio guztia heltzen.

Prestakuntzarik ez egiteko arrazoia	Guztira	Ehunekoak
Ez dut nire lanerako behar	77	42,3
Interes urriko gaiak	11	6,0
Informaziorik ez egotea	48	26,4
Denbora falta	26	14,3
Gehiegizko adina	13	7,1
Joan eta etortzeko arazoak	3	1,6
Beste arrazoi batzuk	4	2,2
Ed/Ede	10	
Guztira	192	100

30. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeek Prestakuntza Ikastarorik ez egitearen arrazoiak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.



37. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeek Prestakuntza Ikastarorik ez egitearen arrazoiak. Ehunekoak. 2004.

4.6.4. Prestakuntza beharrizanak detektatzea

Prestakuntzari buruzko atal hau bukatzeko, 31. taulan ikus daiteke ezen azterketan parte hartu duten 100eko 60,3 (114) emakumeek ez dutela beharrezkotzat jo prestakuntza-ekintza berriak eskuratu edo hobetzea, eta 100eko 39,7k (75ek) prestakuntza-jarduerak eskatzen dituztela.

Prestakuntza-beharriz.	Guztira	Ehunekoak
Bai	75	39,7
Ez	114	60,3
Ed/Ede	39	
Guztira	228	100

31. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen prestakuntza-beharrizanak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

Ezagupen berriak hartzea egoki eta beharrezkotzat jo duten emakume horiei arlorik garrantzitsuenak zein diren adierazteko eskatu zaie. 32. taulan haien eransketa bildu da. Prestakuntza-beharrizaneekin zerikusia duten erantzunetan ohiko zerbait ikusi da: behar diren prestakuntza-beharrizanak zehazki zein diren argitasunez azaltzerakoan dagoen zailtasuna.

Prestakuntza behar den ezagutza-arloak	Guztira	Ehunekoak
Egunarapen etengabea	25	29,7
Fitosanitarioen erabilpena	8	9,4
Abeltzaintza	7	8,2
Kontabilitatea	6	7,1
Frutikultura	6	7,1
Kudeaketa	4	4,7
Baratzezaintza	4	4,7
Teknika berriak	3	3,5
Laguntzak jasotzeko tramiteak	3	3,5
Merkaturatzea	2	2,4
Ekologia	2	2,4
Gaztagintza	2	2,4
Lorazaintza	2	2,4
Makinen erabilpena	2	2,4
Ofimatika	2	2,4
Ardi eta ahuntzak	2	2,4
Lore-hazkuntza	1	1,2
Laborantza berriak	1	1,2
Gozogintza	1	1,2
Osoko ekoizpena	1	1,2
Txakolina eta mahatsak	1	1,2
Guztira	85	100

32. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeek prestakuntza eskatzen duten Ezagutza-Arloak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

Eta, kasu honetan, Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen prestakuntza-eskaririk gehienak ezagupenak "etengabe eguneratzeari begirakoak izan dira, erantzunen %29,4 hartu dutenak. Horrek dakarrenez, eskaria azaldu behar da haien jarduera-eremuan dauden aldaketen berri jakiteko. Aldaketa horiek ekonomikoak, laguntzenak, teknika berrienak, makina berrienak eta abarrenak izan daitezke.

Horregatik, neurri handi batean, gainerako ezagutza-arloak gertaera horrek zehazturik daude. Izan ere, landa-sektoreko emakumeen euren jarduera-arloei dagozkien prestakuntza-ekintzak eskatu dira: nekazaritza, abeltzaintza, fitosanitarioak eta abar. Ezagutza-arlo horiek, lehen adierazi den bezala, dirudienez, uneotan, dauden prestakuntza-ikastaroen eskaintzaren barruan daude. Izan ere, horiek emakumeek eurek egin dituzte.

Zalantzarik gabe, etengabe ikasteko gogoia dute. Hasierako jarrera hori benetan garrantzitsua da edozein motatako prestakuntza-ekintzei ekiteko. Baina, aitzitik, horrek landa-munduarekin loturik dauden hainbat eragile eta erakunde egokiena deritzoten eskaintzaren arabera oinarritzen jarraitzen duen prestakuntza-sistema indartzen du, haien ustetan nekazaritza edo/eta abeltzaintzako ingurunea ukitzen duten aldaketen arabera, eta, gutxiago, ikasleen eskari zehatzen arabera. Ikasle horiek, kasu honetan, emakumeak dira eta beraiei, beren gertutasun onetik harago, beren prestakuntza arloko beharrezan zehaztea kostatu bide zaie.


Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako ustiattegietan lan egiten duten eta prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten emakumeak ezagutzekotan egindako ereduari jarraiki, era berean, kasu honetan guztiz ondo dago aurretik aipaturiko arloetako prestakuntza eskatzen duen emakumearen mota-profila kontutan hartzea. Eta 38., 39., 40. eta 41. grafikoetan emaitza horiek islatu dira.

Adin aldagaiarekin hasirik 38. grafikoan ikus daitekeenez, 31 eta 40 eta 41 eta 50 urte bitarteko adin-taldean artean daude bildurik prestakuntza-jarduerak eskatzen dituzten 100eko emakumerik gehienak.


39. grafikoan erakusten denez, prestakuntza-beharrizanen kontzentrazio handiena nekazaritzan jarduten duten emakumeen artean dago (haien %59,3). 100eko 35,8 emakume abeltzaintzari begira daude; eta 100eko 39,2, ustiategi mistoei begira.

40. grafikoan ikus daitekeenez, nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dion bi emakumetarik batek baino gehitxoagok (100eko 59ek baino gehitxoagok) eskatu dituzte prestakuntza-ekintza berriak, eta kotizatzen dioten 100eko 27,8k.


Eta, azkenik, 41. grafikoan argitasunez ikus daitekeenez, nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueretan bakarrik jarduten duten emakumeen artean (%57,5) eta beste jarduera bat duten beste batzuen artean (%68,4) daude prestakuntza-ekintza berriak gehienbat eskatu dituztenak.




38. grafikoa. Emakume landunen prestakuntza-beharrizanetarako eskaria, Adin-taldearen arabera. Ehunekoak. 2004.



39. grafikoa. Emakume landunen prestakuntza-beharrizanetarako eskaria, ustiategiaren ekoizpen-orientazioaren araberakoa. Ehunekoak. 2004.



40. grafikoa. Emakume landunen prestakuntza-beharrizanetarako eskaria, nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioaren araberakoa. Ehunekoak. 2004.



41. grafikoa. Emakume landunen prestakuntza-beharrizanetarako eskaria, Jarduera nagusiaren arabera. Ehunekoak. 2004.

4.7. Elkartegintza maila

Talde baten elkartegintza maila ezagututa, besteak beste, honakook jakin daitezke: haren gizarte dentsitatearen maila, haren talde-kontzientziarioaren maila eta hainbat abaguneraren aurrean erantzuteko haren gaitasuna.

Ildo horretatik, galdera-sortako 19. G galdera honakoa jakiteko egin zaie: zenbatekoa den Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeek nekazaritza edo/eta abeltzaintzako eremuari begira zehazki dauden erakundeen barruan agertzen duten elkartegintza maila. Eta emaitzek erakusten dutenez, 100eko 33,5 (71) emakume horrelako elkarrekin parte hartzen dabilta. Gainerakoak (%66,5 = 141), aldiz, ez dira hori egiten ari.

Elkarrekin parte hartzea	Guztira	Ehunekoak
Bai	71	33,5
Ez	141	66,5
Ed/Ede	16	
Guztira	228	100

33. taula. Emakumeek Bizkaiko landa-sektorearekin zerikusia duten elkarrekin parte hartzea. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

Bizkaiko landa-sektorearekin loturik dagoen elkarrekin batean parte hartzen duten emakumeei dagokienez, 34. taulan ikus daitezke ezen haietarik 100eko 88,7 (63) afiliaturik daudela eta gainerakoak (100eko 9,9 = 7k) erantzukizuneko kargua dutela.

Elkarteren bateko partaidetza maila	Guztira	Ehunekoak
Afiliatua bakarrik	63	88,7
Erantzukizineko karguarekin	7	9,9
Beste egoera batzuk	1	1,4
Ed/Ede		
Guztira	71	100

34. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen Elkartegintza Maila. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.


Garrantzikoa da jakitea zein den landa-sektorearekin loturiko elkarte batean edo batzuetan nolabait parte hartzen duten emakumeen mota-profila. Horretarako, emaitzei buruzko lau grafiko azalduko ditugu jarraian, aurretik erabilitako lau segmentazio-aldagaiekin jarraituz.

Horrela, 42. grafikoan ikus daitekeenez, Bizkaiko landa-sektoreko 31 eta 40 urte bitarteko bi emakumetarik bat (%50) elkartuta dago. Elkartegintza-portzentaje txikiagoa erregistratu da 60 urtetik gorakoen artean (%20,6) eta 30 urtetik beherakoen artean (%33,3).


Aitzitik, 43. grafikoan ikus daitekeenez, ustiategiaren ekoizpen orientazioa ez da adina bezain aldagai determinatzailea elkartegintza mailan, ustiategi mistoetako emakumeen artean bakarrik baina (haien %24,1). Guztirakoaren %10 baino gutxitxoago erregistratu da.

Alabaina, 44. grafikoan ikus daitekeenez, haiek elkartuta egoteak portzentaje altuagoa agertzen du nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten emakumeen artean (%46,3). Nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen ez dioten emakumeen aldetik elkartegintzarik ezaren ia %80 ikusi da.


Azkenik, 45. grafikoan nabarmentzekoa denez, Bizkaian nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueretan bakarrik jarduten duen bi emakumetarik ia bat (%47,6) elkartuta dago. Etxeko lanetan jarduten duten emakumeen elkartegintza-portzentajea %30,6koa da; eta beste jarduera batzuetan aritzen direnena, %23,8koa.




42. grafikoa. Emakumeek Bizkaiko landa-sektorearekin zerikusia duten elkarteetan parte hartzea, Adin-taldean arabera. Ehunekoak. 2004.



43. grafikoa. Emakumeek Bizkaiko landa-sektorearekin zerikusia duten elkarteetan parte hartzea, Ustiatzearen ekoizpen-orientazioaren arabera. Ehunekoak. 2004.



44. grafikoa. Emakumeek Bizkaiko landa-sektorearekin zerikusia duten elkarteetan parte hartzea, Nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioaren arabera. Ehunekoak. 2004.



45. grafikoa. Emakumeek Bizkaiko landa-sektorearekin zerikusia duten elkarteetan parte hartzea, Jarduera nagusiaren arabera. Ehunekoak. 2004.

5. EMAITZEN LABURPENA

Jarraian azalduko ditugu, laburki, Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen egoerari buruzko txostenaren emaitzarik garrantzizkoenak.

Bizkaiko Nekazari Aldeetako Emakumeen Gizarte-demografiako Ezaugarriak.

1. Bizkaiko nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueretan lan egiten duten eta azterketa honetan parte hartu duten emakumeen batezbesteko adina 54,03 urtekoa da.
2. 100eko 81,3k lehen mailako ikasketak dituzte edo ez dute ikasketarik bukatu.
3. 100eko 80,7 ezkondua daude eta bikotekidearekin bizi dira.
4. Emakumeen seme-alaba kopurua 2,04koa da..

Bizkaiko Nekazari Aldeetako Emakumeen Jardueraren Ezaugarriak.

5. Azterketa honetan parte hartu duten 100eko 46,5 emakumek etxe eta famili lanak dituzte jarduera nagusi. Nabarmentzekoa denez, haietarik 100eko 20,7 emakumek nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueretan bakarrik jarduten dute.
6. Gaur egun, Bizkaiko nekazari aldeetako 100eko 52,6 emakumek nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen diote.
7. Nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueran bakarrik jarduten duten 100eko 100 kotizatzen diote emakumeek nekazaritzako gizarte segurantzari, eta bereziki etxeko lanetan aritzen diren 100eko 49,1ek.
8. Azterketa honetan parte hartu duten 100eko 60,2 emakumek beren jarduera abeltzaintzari begira jarri dute, haragitarako behi-aziendari begira bereziki. 100eko 27 ustiategi mistoei begira daude; eta 100eko gainerako 12,8, nekazaritzako ustiategiei begira.
9. Abeltzaintza Bizkaiko landako emakumearen jarduera nagusia da, haren adina berdina delarik.
10. Hala ere, egiaztatu denez, emakumezko gazte gehiago (bereziki, 31 eta 40 urte bitarteko gehiago) daude Bizkaiko nekazaritzako ustiategietan.
11. Ildo horretatik, nekazaritzako ustiategiei begira dauden emakumeek abeltzaintzakoei eta mistoei begira daudenek baino denbora laburragoan jardun dute proportzionalki.
12. Bizkaiko nekazari aldeetako emakumeen nekazaritzako jarduera, abeltzaintzako edo mistoa orientatu den lau ustiategitarik ia hiru jabetzakoak dira.
13. Parte hartu duten 100eko ia 70ek beren burua beraien ustiategia egunero ibiltzeko arduraduntzat dute.
14. Azterketan parte hartu duten 100eko 89 emakume landa-eremuko ohiko jardueretan aritu den familiatik datoz.
15. Era berean, nabarmendu behar da ezen 100eko 78,2 emakumek beren etxekoan ustiapen berarekin jarraitzen dutela.
16. Bizkaiko landa-sektoreko 100eko 72,4 emakumek famili eta maitasun izaerako faktoreak jo ditu jardueretan beren egungo orientazioarekin jarraitzeko arrazoitzat: famili tradizioa, etxeko eszenategirako laguntza modukoa, eta era berean nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueretatik datorren eta berauek garatzen dituen pertsona bati sentimenduz loturik egotea.

Bizkaiko Landa Sektorean Genero-ezberdintasunak egotea.

17. Parte hartu duten 100eko 60,6 emakumek ez dute uste landako jardueran egunero aritzeko genero-ezberdintasunik dagoenik.

18. Hala ere, ezberdintasunak ikusi dituztenen artean, honakoa da ezberdintasunezko elementu nagusia: "lan-dualtasuna", hau da, emakumeek ekoizpen-eszenategian (nekazaritzan edo/eta abeltzaintzan) eta ugaltze-gunean (etxean eta familiaren baitan) egin beharreko jarduerak garatu eta kudeatzeko erantzukizuna hartzea.

19. Ildo horretatik, Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen erdiek baino gehiagok (100eko 50,9k) etxeko eta familiaren baitako lanetan bakarrik jarduten dute. Hortaz, lanen sexu-bereizketa egiaztatu da Bizkaiko landa-eremuan, halaber.

Bizkaiko Landa Sektoreko Emakumeen Beharrizan Nagusiak.

20. Bi beharrizan talde handi detektatu dira:

a. Nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jardueraren mailakoak, diruzko laguntzak gehitzearen eta uneotako jardueraren errentagarritasun urria hobetzeko neurriak garatzearen aldeko eskaria bereziki.

b. Eta aipatutakoaren ildotik, genero izaeraren maila zehatzeko beharrizanak. Izan ere, lan-dualtasuna kudeatzeko laguntza handiagoak eskatu dituzte. Horrek emakumeei "beren buruarentzat" denbora gehiago izatea ekarriko lieke.

Nekazaritza edo/eta Abeltzaintzako Jarduerarekiko Gogobetetasun Maila.

21. Erakundeek landa-eremuko emakumeei laguntzeko egin izan dituzten ekintzek agertu dituzte baloraziorik txarrenak: Bizkaiko landa-sektoreko 100eko 56,5 emakume ez daude alderdi horrekin batere pozik.

22. Produktuak merkaturatzeko egungo egoera (100eko 42,5 emakume ez daude batere pozik), diruzko laguntzak eskuratzea (100eko 36,6 ez daude batere pozik) eta, azkenik, emakumeen aldetiko ustiategiaren titulartasuna edo/eta titularkidetasuna sustatzen duten ekintzak (100eko 27,6 ez daude batere pozik) izango lirateke hurrenak, hurrenkera horretan, balorazio-emaitzetan.

23. Aipaturiko lau iritzi-eremuetan gogobetetasun/gogobetetasunik ezeko honako kontuok egiaztatu dira:

a. Zenbat eta adin handiagoa, hainbat eta gogobetetasunik ezaren maila altuagoa; eta alderantziz.

b. Nekazaritzari begirako emakumeak pozago daude, diruzko laguntzak atzitzearen kontuan izan ezik, abeltzaintzari eta ustiategi mistoei begirakoak baino.

c. Jarduerotan bakarrik jarduten duten emakumeek produktuak merkaturatzeko egungo egoerarekiko gogobetetasunik ezaren maila altuagoa agertu dute, baina pozago azaldu dira diruzko laguntzak atzitzearekin.

d. Nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizatzaile izan edo ez izateak ez dakar interpretazio-elementurik, antza, produktuak merkaturatzearen kasuan baizik.

24. Oro har, titulartasun edo/eta titularkidetasunerako ekintzak baloratzeko galderarekiko erantzunik ezen ("ez daki/ez du erantzuten") kopurua ikusita ondoriozta daitekeenez, ekintzok zabaltzeak ez ditu emakume-segmentu guztiak iritsi edo/eta ez bide dago talde honen kezka nagusien barruan.

Prestakuntzaren mailako Beharrizanak eta Egoera

25. Azterketan parte hartu duten emakume guztietarik 100eko 78,2k ez dute egin nekazaritza edo/eta abeltzaintzako jarduerekin zerikusirik duen prestakuntza-ekintzarik.

26. Prestakuntza garatzen den jarduerarako beharrezkoa ez izatea, informaziorik eza eta denbora falta dira Bizkaiko nekazari aldeetako emakumeek prestakuntza-jarduerarik ez egitearen arrazoi nagusiak.

27. Parte hartu duten 100eko ia 40 emakumek prestakuntza-beharrizan berriak eskatu nahi dituzte, beren jardueraren eremuko ezagupenak "etengabe eguneratze"kotan.

28. Prestakuntza-jarduerak egin dituen Bizkaiko landa-sektoreko emakumearen mota-profil bat ikusi da: emakumeek prestakuntza-ekintza berriak eskatu gura dituzte. Landako jardueran bakarrik eta, bereziki, nekazaritzan jardun eta nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten 31-40 urteko emakumez ari gara funtsean.

Elkartegintza maila

29. Azterketa honetan parte hartu duten Bizkaiko landa-eremuko 100eko 33,5 emakume sektorearekin zerikusia duten erakundeekin elkartuta daude; eta 100eko 89, afiliatuta bakarrik.

30. Elkartuta dagoen Bizkaiko landako emakumearen mota-profila nekazaritza edo abeltzaintzako jardueran bakarrik aritzen den eta nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dion 31 eta 40 urte bitarteko emakumearena da, hau da, prestakuntza-ekintzak egin eta eskatzen dituen, halaber.

ERANSKINAK

1.ERANSKINA : Koadro, taula eta grafikoen aurkibidea

2.ERANSKINA : Erabilitako galdera-sorta

1.ERANSKINA : Koadro, taula eta grafikoen aurkibidea

1. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen batezbesteko adina. 2004.

2. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen adin-taldeak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

1. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen adin-taldeak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

3. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeek bukatutako ikasketak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

2. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeek bukatutako ikasketak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

4. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen egoera zibila. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

3. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen egoera zibila. Ehunekoak. 2004

5. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen seme-alaba kopurua. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

6. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen Etxe eta Famili Lanetako Erantzukizunaren banaketa. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

4. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen Etxe eta Famili Lanetako Erantzukizunaren banaketa. Ehunekoak. 2004.

7. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen jarduera nagusia. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

5. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen jarduera nagusia. Ehunekoak. 2004.

8. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioa. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

9. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioko antzinasuna. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

6. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioko antzinasuna. Ehunekoak. 2004.

10. taula. Nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten Bizkaiko landa-sektoreko emakumeen jarduera nagusia. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

7. grafikoa. Nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten Bizkaiko landa-sektoreko emakumeen jarduera nagusia. Ehunekoak. 2004.

11. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen jarduera nagusiaren eta nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioa. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

12. taula. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen ustiategiaren ekoizpen-orientazio nagusia. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

8. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen ustiategiaren ekoizpen-orientazio nagusia. Ehunekoak. 2004.

9. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen ustiategiko ekoizpen-jarduerak. Ehunekoak. 2004.

10. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetan lan egiten duten emakumeen ustiategiaren ekoizpen-orientazio nagusia eta haien adina. Ehunekoak. 2004.

13. taula. Nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten eta Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiategiaren ekoizpen-orientazio nagusia. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

11. grafikoa. Nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzen dioten eta Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiategiaren ekoizpen-orientazio nagusia. Ehunekoak. 2004.

13. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiategiaren ekoizpen-orientazio nagusiaren eta nekazaritzako gizarte segurantzari kotizatzearen arteko erlazioa. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

14. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiatokia edukitzeko araubide gehiengoduna. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.
12. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiatokia edukitzeko araubide gehiengoduna. Ehunekoak. 2004.
15. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiatogiko titulartasuna edo/eta titularkidetasuna. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.
16. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiatogiko antzintasuna. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004 (urteak). 26
13. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiatogiko antzintasuna. Ehunekoak. 2004 (urteak). 26
17. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiatogiko antzintasuna, jardueraren orientazio nagusiaren arabera. Guztirakoak. 2004 (urteak).
14. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ustiatogiko antzintasuna, jardueraren orientazio nagusiaren arabera. Ehunekoak. 2004 (urteak).
18. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeak, ustiatokia egunero ibiltzeko arduradunak direnak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004. 28
19. taula. Ustiatokia egunero ibiltzeko pertsona arduradunak, arduraduna emakumea ez denean. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.
20. taula. Bizkaiko landa-sektoreko emakumeak lanean dabilzan ustiatogiaran famili jatorria. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.
21. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen famili ustiatogiko jarraitasuna. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.
22. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen famili ustiatogiko arduraren eragin duen arazoi nagusia. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.
23. taula. Bizkaiko nekazari aldeetako emakumeen beharrian nagusiak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.
15. grafikoa. Bizkaiko nekazari aldeetako emakumeen beharrian nagusiak. Ehunekoak. 2004.
24. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, produktuak merkaturatzearekikoa, diruzko laguntzak atzitzearekikoa, landako emakumeari laguntzearekikoa eta titulartasun/ titularkidetasuna sustatzen laguntzearekikoa. Guztirakoak, 2004.
16. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, produktuak merkaturatzearekikoa, diruzko laguntzak atzitzearekikoa, landako emakumeari laguntzearekikoa eta titulartasun/ titularkidetasuna sustatzen laguntzearekikoa. Ehunekoak, 2004.
17. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, landako emakumearentzako laguntzarekikoa eta adinaren arabera. Ehunekoak, 2004.
18. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, landako emakumearentzako laguntzarekikoa eta orientazioaren arabera. Ehunekoak, 2004.
19. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, landako emakumearentzako laguntzarekikoa eta nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioaren arabera. Ehunekoak, 2004.

20. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, landako emakumearentzako laguntzarekikoa eta jarduera nagusiaren arabera. Ehunekoak, 2004.
21. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, produktuak merkaturatzearekikoa eta adinaren arabera. Ehunekoak, 2004.
22. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, produktuak merkaturatzearekikoa eta ustiategiaren orientazioaren arabera. Ehunekoak, 2004.
23. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, produktuak merkaturatzearekikoa eta nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioaren arabera. Ehunekoak, 2004.
24. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, produktuak merkaturatzearekikoa eta jarduera nagusiaren arabera. Ehunekoak, 2004.
25. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, diruzko laguntzak atzitzearekikoa eta adinaren arabera. Ehunekoak, 2004.
26. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, diruzko laguntzak atzitzearekikoa eta ustiategiaren orientazioaren arabera. Ehunekoak, 2004.
27. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, diruzko laguntzak atzitzearekikoa eta nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioaren arabera. Ehunekoak, 2004.
28. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, diruzko laguntzak atzitzearekikoa eta jarduera nagusiaren arabera. Ehunekoak, 2004.
29. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, titulartasuna eta titularkidetasuna sustatzearekikoa eta adinaren arabera. Ehunekoak, 2004.
30. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, titulartasuna eta titularkidetasuna sustatzearekikoa eta ustiategiaren orientazioaren arabera. Ehunekoak, 2004.
31. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, titulartasuna eta titularkidetasuna sustatzearekikoa eta nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioaren arabera. Ehunekoak, 2004.
32. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen gogobetetasun maila, titulartasuna eta titularkidetasuna sustatzearekikoa eta jarduera nagusiaren arabera. Ehunekoak, 2004.
25. taula. Bizkaiko landa-sektorearen barruan gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun handiak egotea, Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen ikuspuntutik. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.
26. taula. Gizon eta emakumeen arteko Bizkaiko landa-sektoreko diferentzia handien zerrenda. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.
27. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeek Prestakuntza Ikastaroak egitea. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.
28. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeek egindako Prestakuntza Ikastaroen zerrenda. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.
29. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeek egindako Prestakuntza Ikastaroen baliagarritasuna baloratzea. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.
33. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten eta prestakuntza-ikastaroak egiten dituzten emakumeen

adina. Ehunekoak. 2004.

34. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten eta prestakuntza-ikastaroak egiten dituzten emakumeen ustiattegiko ekoizpen-orientazioa. Ehunekoak. 2004.

35. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten eta prestakuntza-ikastaroak egiten dituzten emakumeen nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioa. Ehunekoak. 2004.

36. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten eta prestakuntza-ikastaroak egiten dituzten emakumeen jarduera nagusia. Ehunekoak. 2004.

30. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeek Prestakuntza Ikastarorik ez egitearen arrazoiak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

37. grafikoa. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeek Prestakuntza Ikastarorik ez egitearen arrazoiak. Ehunekoak. 2004.

31. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen prestakuntza-beharrizanak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

32. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeek prestakuntza eskatzen duten Ezagutza-Arloak. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

38. grafikoa. Emakume landunen prestakuntza-beharrizanetarako eskaria, Adin-taldean arabera. Ehunekoak. 2004.

39. grafikoa. Emakume landunen prestakuntza-beharrizanetarako eskaria, ustiategiaren ekoizpen-orientazioaren arabera. Ehunekoak. 2004.

40. grafikoa. Emakume landunen prestakuntza-beharrizanetarako eskaria, nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioaren arabera. Ehunekoak. 2004.

41. grafikoa. Emakume landunen prestakuntza-beharrizanetarako eskaria, Jarduera nagusiaren arabera. Ehunekoak. 2004.

33. taula. Emakumeek Bizkaiko landa-sektorearekin zerikusia duten elkarteetan parte hartzea. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

34. taula. Bizkaiko landa-sektorean lan egiten duten emakumeen Elkartegintza Maila. Guztirakoak eta ehunekoak. 2004.

42. grafikoa. Emakumeek Bizkaiko landa-sektorearekin zerikusia duten elkarteetan parte hartzea, Adin-taldean arabera. Ehunekoak. 2004.

43. grafikoa. Emakumeek Bizkaiko landa-sektorearekin zerikusia duten elkarteetan parte hartzea, Ustiategiaren ekoizpen-orientazioaren arabera. Ehunekoak. 2004.

44. grafikoa. Emakumeek Bizkaiko landa-sektorearekin zerikusia duten elkarteetan parte hartzea, Nekazaritzako gizarte segurantzarenganako kotizazioaren arabera. Ehunekoak. 2004.

45. grafikoa. Emakumeek Bizkaiko landa-sektorearekin zerikusia duten elkarteetan parte hartzea, Jarduera nagusiaren arabera. Ehunekoak. 2004.

2.ERANSKINA : Erabilitako galdera-sorta

Galdera-sortaren zk.: (ez bete) _____

Egunon/Arratsaldeon: Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saila azterlana egiten ari da Bizkaiko nekazari aldeetako emakumeen egoerari buruz. Zure iritzien berri jakin nahi dugu jarduketa zehatzak egiteko. Beraz, irakurri arreta handiarekin galdera bakoitza eta erantzun zintzo, mesedez; eduki kontuan inork ez duela jakingo norenak diren erantzunak. Ikusiko duzun bezala, galdera gehienetan biribil batez inguratu beharko duzu hautatzen duzun erantzuna. Lehenengoan okerrekoa hautatzen baduzu, ezaba ezazu erantzuna ixa batez (X) eta hautatu beste bat biribil batez. Galdera guztiei erantzundakoan, sartu bidali dizugun gutunazal frankeatuan eta bidaliezaguzu (doan izango da).

P. 01. Adina: ___ ___

P. 02. Bizi zaren udalerria: _____

P. 03. Ikasketak:

- | | | | |
|---|---|------------------|---|
| - Bat ere ez | 1 | - Batxilergoa | 4 |
| - Lehen ikask., OHO, Oinarrizko Batxil. | 2 | - Unibertsitatea | 5 |
| - Labide Heziketa (LH) | 3 | - Ed/Ede | 6 |

P. 04. Egoera Zibila:

- | | | | |
|----------------------|---|---------------------------|---|
| - Eskondu gabe | 1 | - Divortziatuta/Bananduta | 4 |
| - Eskonduta | 2 | - Alarguna | 5 |
| - Bikotean bizi naiz | 3 | - Beste batzuk | 6 |

P. 05. Seme-alabak: ___

- 1.Seme-alaba Adina ___ ___ Familiarekin bizi da? Bai Ez
- 2.Seme-alaba Adina ___ ___ Familiarekin bizi da? Bai Ez
- 3.Seme-alaba Adina ___ ___ Familiarekin bizi da? Bai Ez

P.06. Kotizatzen diozu Nekazarien Gizarte-Segurantzari?

- Bai 1 - Zein urtetatik? ___ ___
- Ez 2

P.07. Zein da zure jarduera nagusia?

- | | | | |
|----------------------|---|------------------------------|---|
| - Beste jarduera bat | 1 | - Erretiratuta / Pentsioduna | 4 |
| - Etxeko lanak | 2 | - Beste egoera bat | 5 |
| - Ez dut lanik | 3 | | |

P. 08. Zein da ustiategiko jarduera nagusia? (Markatu X batez; "beste batzuk" jartzen baduzu, esan zein)

Nekazaritza	Markatu X batez	Azalera (Ha), gutxi gorab.
Barazkiak berotegian		
Txakolina egiteko mahatsa		
Fruta: kiwia/sagarra/madaria		
Beste batzuk (florikultura,)		
Abeltzaintza	Markatu X batez	Abelburu kopurua
Okelatarako behi-azienda. Behi ume-hazleak.		
Gizentzeko behi-azienda. Zekorrak/txahalak.		
Ardi-azienda / Ahuntz-azienda.		
Esnetarako behi-azienda.		
Beste batzuk (txerri-azienda, hegaztiak, ...).		

P. 09. Zein da ustiategiaren ukantzaren araubide nagusia?

- Jabetza 1 - Erdirakoa 3
- Errentamendua 2 - Beste bat 4

P.10. Duela zenbat urte diharduzu nekazaritzan edota abeltzaintzan? ___ ___

P. 11. Ustiategiaren....

- titularra zara? Bai Ez
- titularkidea zara? Bai Ez
- Beste egoera batzuk: _____

P. 12. Ustiategiaren eguneroko funtzionamenduaren arduraduna zara?

- Bai 1
- Ez 2 - Nor da arduraduna?
 - Senitarteko bat 1 - Beste pertsona bat 3
 - Enplegatutako bat 2 - Beste erakunde bat 4

P. 13. Zure familia betidanik jardun duzue nekazaritzan edota abeltzaintzan?

- Bai 1 - ¿Continúa con la explotación familiar? - Bai 1
- Ez 2 - Ez 2
- Ez 2

P.14. Zein izan zen nekazaritzan edota abeltzaintzan jarduteko arrazoi nagusia? (esaterako: familiaren tradizioa, lan egin beharra, etab.)

P.15. Zure ustez, Bizkaian badago alde nabarmenik gizonen eta emakumeen artean nekazaritzako edota abeltzaintzako lanean?

- Bai 1 - Aipatu 1) _____
- 2) _____
- 3) _____
- Ez 2

P.16. Zure ustez, zein da nekazaritzan edota abeltzaintzan ari diren emakumeen beharizan nagusia?

P.17. Egiten duzun lanaren inguruko alderdi batzuekin pozik zauden jakin nahi dugu. Inguratu biribil batez hautatzen duzun erantzuna, ondoko asebetetasun-eskala hau kontuan hartuta:

1	2	3	4
Ez nago	Pozik nago	Nahikoa	Gutziz pozik
pozik	besterik gabe	pozik nago	nago

Produktuen merkaturatzea	1	2	3	4
Laguntza ekonomikoak eskuratzeko modua	1	2	3	4
Baserri aldeko emakumeentzako laguntza	1	2	3	4
Ustiategiko titutar eta titularkide izaten laguntzeko ekintzak	1	2	3	4

P.18. Nork egiten ditu etxeko lanak zuenean?

- Neuk bakarrik 1 Neuk eta senitartekoak 4
- Denon artean 2 Beste pertsona batsuek 5
- Bikote-lagunak eta biok 3

P.19. Jaso duzu nekazaritzari edota abeltzaintzari buruzko trebakuntzarik?

- Bai 1

- Aipatu 1) _____
- 2) _____
- 3) _____
- Balora itzazu egin dituzun trebakuntza-jardueren onuragarritasuna:
- Oso onuragarriak 1 Onura gutxikoak 3
- Onuragarriak 2 Ez dakit/Erantsunik ez 4

- Ez 2

- Mesedez, adierazi zein izan den trebakuntzarik ez jasotzeko arrazoi nagusia:
- Ez dut behar neure lanerako Sí No
- Gaiak ez dira izan interesgarriak Sí No
- Ez dut informaziorik izan Sí No
- Beste batzuk: _____
- _____

P.20. Arloren batean trebatu edo duzun prestakuntza hobetu behar duzula uste duzu?

- Bai 1 - Zeinetan? 1) _____
- 2) _____
- 3) _____

- Ez 2

P.21. Bazara nekazaritzako edota abeltzaintzako elkarteren bateko kide?

- Bai 1 - Zein da zure parte-hartzearen gradua?
- Afiliatuta nago, besterik ez Bai Ez
- Kargua daukat Bai Ez
- Beste bat: _____

- Ez 2